# ARRASATE PRESS

Arrasate 1991ko Martxoak 22, 100. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean




# 100. zenbakia

## Astetik astera hutsetik ehunera

Joseba

HOTZ - BERO
KLIMATIZAZIOA
Kanpantorpea 2, Tfnoak: 79 70 98 eta 79 67 54 ARRASATE

SANFRANTZISKO XABIER
IKASTOLA



*IKASTOLAKO JANTOKIAN DUZU:*

- Bertako sukaldaria
- Dieta orekatua eta zaindua
- Giro atsegina eta familiarra
- Ikasleentzako jokoak, filmeak, liburuak, etab.

*GURASO ETA BAZKIDE GUZTIENTZAT IREKIA*



**25 URTE KALITATEZKO IRAKASKUNTZA • EUSKARAZ •**

**baita JANTOKIAN ere**

ARRASATE PRESS
ASTEKARIA

**Argitaratzailea:**
Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65
**Laguntzailea:**
Arrasateko Udala
**Zuzendaria:**
Joxe Aranzabal
**Erredakzioa:**
Beñardo Kortabarria. Arantzazu Loidi
**Publizitatea eta harpidetzak:**
Josune Biteri
Tfnoa: 77 08 15
**Maketazioa:**
Goio Arana
**Erredakzio-kontseilua:**
Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zaraia, Iñaki Mendiguren
**Kolaboratzaileak:**
Josemari Velez de Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele Zuazubiskar, Patxi Montero, Juan Martin Elexpuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Blanka Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Iñaki Aranburu, Hankamotz, Maite Toledo, Atalataikoan, ASA taldea, Xabin Arrieta, Txipi Ormaetxea.
**Inprimategia:**
Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)
**Banaketa arduraduna:**
J. L. Arejolaleiba
**Copyright:**
ARRASATE PRESS
**Tirada: 7.000 ale**
**Lege-Gordailua: 1124/88**
**ISSN: 0214-4654**
**Frankeo kontzertatua: 37-60**
ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.
ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

# Lehen ehun aleak

"Arrasate Prest" titulatu nuen astekari honetan idatzi nuen lehen artikulua. Erredakzioko ohiturarik eza nonbait, lehen ale hartan titulua agertu ez zen arren. Gaurko ehungarren honetan, berriz, orduko nire uste zalantzakorra osasundu egin da eta -ez zait beste erremediorik geratzen- nire aurreikuspenetan labur geratu nintzela aitortu behar dut. Arrasateko herria prest bazegoela ziur banengoen ere, ez nuen espero hain gertu azalduko zenik. Nekez pentsa nezakeen une haietan, hain arrakastatsu suertatuko zenik, gure -arrasatearron- ohorerako euskaldun guztien eredu bilakatu den Arrasate Press.

Gureak herri aparta izateko nolakotasunak erakusten dituela aipatu dut sarri. Diferente agertu da, orijinala, aukera duen guztietan berezko ikurra azalduz. Eta gure astekariaz ere berbera jazo da, lehen ehun aleak kaleratu dituen bitartean, tinta-jario luze sortaraziz, estilo berri eta aurrerakoi bati bide eman bait zaio. AED elkarteak primeran asmatu zuen astekariaren nondik norakoa eta AP-ren orrialdeetan astero astero edo maiztasun txikiagoz gure partaidetza eskaini dugunok harro sentitzen gara, iritsi garen tokiraino iritsi garelako.

Asteburuetako irakurgai ezinhobea bilakatu zaigu AP, arrasatear askorentzat. Milaka irakurle berri landu ditu eta hori -alafedea!- ez da gauerdiko ahuntzaren eztula. Inguruko biztanlegoaren arauera, AP da Euskal Herrian gehien irakurtzen den astekaria. Bertan irakurleak aurki dezakeen publizitatearen mailak erakusten digu aldizkariaren arrakasta.

Bigarren aro batera sartua da jadanik AP, bilduriko esperientzia eta jakinduria ongi etorriko zaizkiolarik, gero eta produktu duinago bat argitaratzeko. Arrasateko herriak exijitu egin behar du astekariaren mailari eustea... eta -ahal delarik- hobeagotzea. Helburu hori garbi izanik, aiseago helduko gara testuinguru honen egiazko mamira, hain zuzen ere, Arrasate euskaldunago batera.

Gaurko idazlantxo honi amaiera emateko eskerrik beroenak helerazi nahi nizkieke -irakurle naizen aldetik- erredakzioko lan eskergan Joxe Aranzabalengandik hasita hain sutsu eta zintzo aritu diren guztioi. Euskal Herria egiten ari da!

*Josemari Velez de Mendizabal*

ZANGITU C. B.
PINTURAK ETA PAPERA PINTATUAK
Helbide berria: OLARTE 29,
Alfonbra-likidazioa Otalora 1ean



Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 57

HiRE
Liburu eta oparidenda
Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

BERANGO
Aroztegia orokorra
sukaldeko altzariak
kanpo eta barruko ateak
Legarreko pabiloi industriala
(behea) Tfno: 79 01 92





BELUN
taberna
Lagunarte bikaina
Garagarza auzoa z/g Tfnoa: 79 61 14

ARAMAIO
okindegia
Maisu Guridi 3,
Tfnoa: 79 36 46


## Ostarku-ko disko jartzaileari, belarri ertzera

Lehenengo eta behin, garbi gera bedi putakumeka hasteko gogoari eusteko sekulako ahalegina egiten ari naizela. Badakit jakin hi lanean hagoela eta inori ere ez zaiola gustatzen bere lanean inor sar dadin. Badakit halako joera orokorra dagoela goizeko hiruretatik aurrera kalean dabilen guztia mozkortzat jotzeko. Baina horrek ez dik inolako eskubiderik ematen jendea torturatzeko, joan zen ostiralean jasan, soportatu, sufritu, oinazez eraman egin behar izan genuenak ez bait dauka beste izenik. Musika pertsona normal bat aguantatzeko gai ez den bolumenean, etra musika diot nolabait esatearren, ezen hik jartzen duan horrek musikarekin duen antza aspaldi ahaztu zitzaian, nonbait.

Begira, tipo, goizeko ordu horietan bada kalean jende "normalik", erabat mozkor ez doana, esan nahi bait da. Afari batetik datorrena, farra eta lagunarteko poteoa luzatu zaiona, gauak aterperik gabe harrapatu dituen bikoteak... Horiei halako rap-teknomatxaka nazkagarri horrekin torturatzea ez duk zilegi, eta are gutxiago horiek "lantzeko", noizean behin, horterada galanten bat tartekatzea. Une honetan ezer aukeran badugu, musika mota ezberdinak dituk, eta onak gainera. Baina ez duk hori bakarrik: torturatzaile onenen gisara, hire tronu garai horretan gordeta, ez aterik nora jo, ez lehiatilarik gainetik eskaerak egin ahal izateko... Gelditzen zaigun aukera bakarra sufritzaileoi, pistatik eskua altxa zezen adarren erara behatzak jarrita, baina ezta honela ere, *que si quieres arroz Kattalin.*

Errez daukak esatea: ez hadi etorri! Baina hori ez duk zilegi hi zerbitzu publiko bat eskeintzen ari haizenean, udal baimen batez, eta ia irtenbide bakarra, esklusiboa ordu horietan. Errespeto apur bat eskatuz, aldaketa nimiñoenaren esperoan,

*G.M. eta R.U.*

## Zorionak Zaldibarreko Futbito Txapelketako antzolatzaileei

Azken bolada honetan Arrasaten norbait zoriondu beharra egongo balitz, nik neuk Zaldibarko Futbito Txapelketako antolatzaileak zoriondukoko nituzke. Herriko kuadrillen artean txapelketa horrek sortarazi duen giroa ezin hobea iruditzen zait, eta astero-astero antolatzaileek egiten duten lana ere txalogarria dela uste dut.

Eskutitz honen helburua horixe zenez, neure zorionik beroenak Zaldibarko Futbito Txapelketa antolatu dutenei, merezi dituzte eta. Zorionak benetan.

Bestalde, kritika bat ere egin nahi dut. Larunbatero Zaldibarren egoten naiz, eta gutxienez partidu bat ikusten dut, eta partidu horietan hainbat jokalariren jarrerak ez zaizkit gustatzen, arbitroekin sartzen direlako askotan arrazoirik eduki gabe. Ikusleen aldetik ere, gauza bera nabaritu izan dut. Ez al dira konturatzen arbitroek borondatea besterik ez daukatela?

Beraz, jendeari errespetu handiagoa eskatuko nioke. Taldeek erabiltzen duten hizkera, gazteleraren ordez, euskera izatea ere gustatuko litzaidake, baina hori ez dut uste antolatzaileen esku dagoenik...

*Marijo*



# Arrasate Pressen bertute eta akats nagusiak zeintzuk dira?



**Jon Otero (Langabetua)**

Agian iragarki asko, toki larregi hartzen dutela. Apur bat denetarik dauka, eta ondo dago, baina euskararen filosofiari buruzko gaiez gehiago eduki beharko lukeela uste dut.



**Espe Urteaga (Etxekoandrea)**

Egia esan, nik irakurri irakurri ez dut egiten, gainetik begiratzen dut, eta orduan ezin dut esan zer dagoen ondo eta zer gaizki.



**Arantxa Sanjose (Etxekoandrea)**

Beno, euskara gehiegi ez dakit eta bakarrik letra handiak irakurtzen ditut eta bereziki interesatzen zaidan zerbait, baina ez aldizkari osoa. Orokorrean ondo dagoela iruditzen zait. Behar bada hobe daiteke, baina niri gustatzen zait.



**Aitor Zarraoa (Tabernaria)**

Gauza batzuk badaude interesgarriak, baina beste batzuk ez daukate horrenbesteko interesik. Arrasateko berriak eta ondo daude, baina bailarako gehiago agertu beharko lirateekeela uste dut.


LENIZ

AUTO ESKOLA



GIDABAIMEN GUZTIAK ZURE ESKU!

ARRASATE - ESKORIATZA

KATAIDE
JATETXEA

- Enpresa batzarrak
- Eskontzak
- Afari xarmantak
- Lehen jaunartzeak
- Lagunarte afariak

Bi jangela eder eta erreserbatua zure gustorako

Erreserbak Tel.: (943) 79 60 10

Kataide Poligonoa. Arrasate

Hilbera kafetegia

Uribarri Etorbidea
ARRASATE

MemesA

79 42 22

## BEHARREZKO TELEFONOAK

**ERITETXEAK**
Arrasateko Eskualde-Ospit. ...... 79 53 00
Igualatorioa ...... 79 05 00
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) ...... 79 39 00
(emakumeak) ...... 79 44 11
Buru osasunerako zentrua ...... 79 90 11

**GURUTZE GORRIA**
Bergara ...... 76 55 76

**DYA**
Antzuola ...... 76 62 91

**ANBULATORIOAK**
Arrasate (Larrialdiak) ...... 79 13 57
(Txanda hartzeko) ...... 77 03 46
77 07 21
Oñati ...... 78 08 52
Eskoriatza ...... 79 98 58
Aretxabaleta ...... 79 74 58
Aramaio ...... (945) 45 51 16

**ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako anbulantziak ...... 45 87 44

**UDALTZAINGOA**
Oñati ...... 78 04 11
Bergara ...... 76 14 69
Arrasate ...... 79 14 39
Aretxabaleta ...... 79 10 52
Eskoriatza ...... 79 03 22

**ERTZAINTZA**
Arrasate ...... 79 71 99

**SUHILTZAILEAK**
Udal taldea ...... 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile
burua ...... 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea .. 78 28 00

**MATXURAK**
Urak (udal zerbitzua) ...... 79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero) ...... 79 05 81
Gasa ...... 900 40 05 23
...... 79 78 44
...... 79 76 78

**GARRAIOAK**
Taxiak ...... 79 12 22
P.E.S.A. ...... 79 14 19

**HIRUGARREN ADINARENTZAKO ZENTRUAK**
Iturbide Egoitza ...... 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza ...... 79 81 57

**KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA**
Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkartea ...... 79 87 77



## 22 OSTIRALA

• • •

- Zinea: Amaia. "Polvo de Angel", 10.30etan.
Alai. , "De repente un extraño", 7 eta 9.30etan.
- Arrasate Pressen 100. zenbakiaren aurkezpena, Monterronen arratsaldeko7etan.
- Kontzertua, Organo eta gaitaz, Iruñeko gaiteroekin, parrokian arratsaldeko 8etan.
- Arrasate Pressen jaialdia, Musakolako kiroldegian, gaueko 10etan.
- Goardiako farmazia: Azkoaga, Ferrerias

## 23 LARUNBATA

• • •

- Zinea: Alai. "De repente un extraño", 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Goardiako farmazia: Español, Iturriotz.

## 24 IGANDEA

• • •

- Zinea: Alai. "De repente un extraño", 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Bilera, Irrati Zaleen elkarteak antolatuta. San Andreseko auzo-alkatetzan, denentzat zabalik.
- Goardiako farmazia: Corcuera, Musakola.

## 25 ASTELEHENA

• • •

- Zinea: Alai. "De repente un extraño", 7 eta 9.30etan.
- Goardiako farmazia: Irizar, Erguin.

## 26 ASTEARTEA

• • •

- Zinea: Alai. "De repente un extraño", 7 eta 9.30etan.
- Amnistiaren aldeko Batzordeak antolaturik enkartelamendua, Portaloian, arratsaldeko 7etan.
- Goardiako farmazia: Amezua, Santamaina.

## 27 ASTEAZKENA

• • •

- Goardiako farmazia: Aurora Ruiz, Maala.

## 28 OSTEGUNA

• • •

- Goardiako farmazia: Español, Iturriotz

## Kirol Agenda

### FUTBOLA

• • •

Mondra eta Galdakao taldeen arteko partidua, Atxabalpen, igandean arratsaldeko 4.30etan.

### ESKUBALOIA

• • •

Arrasate eta Ormaiztegiko taldeen arteko neurketa, larunbatean Musakolako kiroldegian arratsaldeko 6.30etan.

### PILOTA

• • •

Gipuzkoako kluben arteko txapelketaren barruan, Aretxabaleta eta Arrasate taldeen arteko neurketak, Aretxabaletan.

### FUTBITOA

• • •

Zaldibarko futbito txapelketaren barnean, larunbat eta igandean frontoian partiduak.

### IRRISTOLAK

• • •

Irristola txapelketa, Zaldibarren arratsaldeko 4etan.

## Liburu berriak

*Auster*, Paul: La invención de la soledad (nobela).

*Machado de Assis*: Quincas Borba (nobela).

*Mishima*, Yukio: El marino que pedió la gracia del mar (nobela).

*Berberova*, Nina: Nina Berberova (biografia).

*Hernandez*, Felisberto: Narracione icompletas (ipuinak).

*Piñera*, Virgilio: Muecas para escribientes (ipuinak).

*Kadere*, Ismaíl: Abril quebrado.

*Panero*, Leopoldo M: Contra España y otros poemas no de amor (poesia).

*Ferruccil*, Franco: El mundo creado (nobela).

*Rhys*, Jean: Después de dejar al señor Mackenzie (nobela).

## Erakusketak

• Hilaren bukaera arte Oñatiko Etxe-Aundi jatetxean, Antonio Arrillaga margolari bergararraren lanez osatutako erakusketa ikusi ahal izango da.

• Apirilaren 3an Elisabet Altunaren eskulanekin, erakusketa irekiko da Monterronen.

## Liburua

• Bizitzeko edo sendatze-




ko? higienismoaren bidetik. Karmelo Bizkarra.

Karmelo Bizkarraren liburu honetan, osasuna eta gaixotasunari buruz, ohizkoak ez diren zenbait ideia aurkeztuko zaizkio irakurleari. Ideia berri edo zahar horiek, osasunaren ikerketa eta ezagupenean oinarritzen dira, beronen mantentze eta berreskuratzean parte hartzen duten faktoreetan.

Medikuntza ofiziala, gaixotasuna eta honen aurkako sendagintzan oinarritzen den bitartean, liburua higienista osasunean oinarritzen da, honen mantentze eta berreskuratze egin ahaletan. Gorputzaren ezagutzak osasunarantz garamatza.




## JAIALDIA

### Arrasate Pressen 100. zenbakiaren jaia

Gaur jaialdi erraldoia! Iritsi da Arrasate Pressen 100. zenbakia, eta horrekin batera baita okasiorako antolatu dugun jaialdi bikaina ere. Orainarte inon ez bezala, trikitilariak eta rock taldeak nahasian ipiniko ditugu, modu berezian jarri ere. Tapia eta Leturiaren eskutik izango da lehen saioa eta horren ondoren, herritarrak aspaldiko partez: RIP okasiorako bilduko da, eta euren kantarik ezagunenak aideratuaz. Minxoriak iparraldeko taldeak bertsioak egingo ditu ohi duenez, baina ez ditugu bertsio hutsak entzungo, talde ezberdinetako kantariak gurekin izango bait dira: Gari (Hertzainak), Roberto Moso (Zarama), Andoni (Delirium Tremens), Elortxa (Jotakie), Anje Duhalde, Josu Garaita (Danba), Gorka (Julio Kageta), Patxi (SS-77) eta Katu (Baldin Bada). Baina ez da hori dena izango, sorpresa atseginak ere izango dira eta. Zatoz eta ikus... Gaueko 10etan Kiroldegian.

## Musika

**• Kontzertua**

Bihar larunbatez, eta gaueko hamaiketatik aurrera Monterron parkean Malaña eta Zakarrak taldeekin kontzertua egingo da. Ea eguraldiak zerbait laguntzen duen.



## Euskara

**• Korrika 7**

Etzi Baionan, Korrikaren zazpigarren edizioari bukaera




emango zaio. Bertara joateko asmoa daukatenei eta modurik ez dutenei esan behar zaie, Baionara joango diren autobusak, goizeko 8etan aterako direla Arbolapetatik.

## Zikloturismoa

Arrasate, Bergara, Soraluze, Maltzaga, Elgoibar, Altzola, eta berriro etxera bueltako ibilbidea prestatu dute Arrasateko Txirrindulari Elkartekoek. Guztira 52 kilometroko ibilbidea,



eta eurekin batera nahi duenak goizeko hamarretarako Portaloian egotea besterik ez dauka

## Ekologia

• Firma bilketa. EKIK antolatuta, datorren asteburuan zentral nuklear guztiak isteko eskatuz. Firma bilketa Portaloian egingo da.

**"Badirudi ezetz, ezin izango dugula Partido Popularraren zerrendarik aurkeztu Arrasaten datozen maiatzeko hauteskundeetarako.**

**Benetako interesa genuen pauso hori eman ahal izateko, orain arte ezin izan bait dugu eskualde horretan lanik egin. Azken momentura arte saiatzen jarraituko dugu, baina ez dut bat ere erraz ikusten. Konplikatua da".**

*(Jose Eugenio Azpiroz, PPko presidentea El Correo Españolen)*

**"Arrasate Press aldizkariak ehungarren alea kalean jarriko du eta honen aitzakiz kontzertu bat paratu du. Bertan, Minxoriak eta Tapia eta Leturiaz gain, RIP talde desagertua berriro bildu eta eskenara igoko da, ostiral honetan.**

**Arrasateko kontzertuan lau kanta joko dituzte. Honetarako entsaioetan bildu dira, garai zaharretan bezala. Aspaldian elkar ikusi gabe zeuden, bakoitza bere aldetik ibiltzen bait da. Jul 'Los Pichones' taldean dabil.**

**Kontzertu bakarra izango da Arrasatekoa, ez du besterik emango, eta printzipioz behintzat, lau kanta besterik ez dituzte joko, bertara hurbilduko diren RIPzale guztiek, gehiagotan jo dezaten lortzen ez badute behintzat".**

*(L.A. kazetariak Egunkarian)*

**Nolakoa da Deba Garaiko Osasun Zerbitzuaren egoera?**



Osasun Zerbitzuen egoeraren diagnosia egiteak ikerketa sakon eta luzea eskatzen du.

Bailarara iritsi nintzenean, nire eginbeharrak errealitatea aztertu, baliabideak antolatu eta Deba Garaiko osasun zerbitzuak hobetzeko proiektuak egitea ziren.

Denbora honetan egindakoa aipatzea aspergarria izango litzateke, beraz interes handiena duena aipatuko dut:

- Osasunean lan egiten duten profesionalen kopurua eta sartzen dituzten orduena asko igo da.
- Erizain lanen kalitete eta edukia ukatu ezin daitekeen neurrian hobetu da.
- Zentru guztietako langileen akordioarekin martxan jarri diren lana egiteko modu berriek, oztopo burokratikoak gainditzeko balio izan dute, eta gainera jendeak zerbitzuekiko duen harremana erraztu egin da.
- Haurren Aho-haginetako Osasun Zerbitzua, Eskualdeko Ikuskapenena, Txertaketena, Bergarako Errehabilitazioarena... sortu ditugu. Gure zentroek gaur egun daukaten ekipamendu maila hobetzen joango da.

Konpondu behar ditugun gaien artean, biharko Arrasateko Osasun Zentruko definizio eta zirriborroa egitea izango litzateke garrantzitsuena, orain daukaguna ez bait da behar bestekoa.

Egindako bideari jarraitu behar bazaio, Zentru guztietan lan egiten duten profesionalen arteko laguntza-mailari eutsi beharko zaio.

*Mertxe Ruiz de Uzkiano, Anbulategiko zuzendaria.*


FAGOR

TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

PEÑACOBA
Auto-Eskola

Zarugalde 46,
79 14 01

ARRASATE

MIREN

APAINDEGIA

Zarugalde 23, 2. Ezk.
Tfnoa: 79 96 90 ARRASATE

## Elgeta

• Hilaren 31a arte, Elgetako frontoian lau t'erdiaren barruan jokatuko den pilota txapelketan, parte hartu nahi duten guztiek izena emateko aukera izango dute. Oskarbi Elkartearekin harremanetan jartzea besterik ez dago.

## Oñati

• "Patagonia, tierra de fuego" izenburuaz Agustin Goenaga eta Eusebio Novoa oñatiarrek, gida-liburua argitaratu dute. Oñatiko taldea, 1989an izan zen Patagonian, eta liburuan bidaiaren berri emateaz gain, lurraldeko historia, ohitura, eta abarri buruz ere zerbait jakin daiteke.





## Bergara

• Urte bete eztabaidan pasatu ondoren, ludoteka sortzeko proiektuak Udaleko Gobernu Batzordearen oneritzia jaso zuen. Ludotekaren helburu nagusia jolasaren bidez umeen sormena garatzea izango bada ere, Bergaran berreuskaldun-tzeari ere lagundu egin beharko dio.

• Astearte gauean, hamabietan zehazki esateko, Altos Hornos enpresan izugarrizko leherketa eta sutea egon ziren. Kalte materialak handiak izan baziren ere, zabaia berehala erre bat zen, zorionez ez zen aparteko zauritutakorik gertatu. Dirudienez, leherketa, koladura ur putzu baten gainera erori zenean gertatu zen.

• Eibarko Klub Deportiboaren historia kontatzen duen argazki erakusketa ikusteko aukera izango da Kultur Etxean apirilaren hasiera arte. Eibarren ezezik, Euskadiko beste toki batzuetan ere erakutsi izan dira argazki horiek, arrakasta handia lortu dutelarik.

## Antzuola

Antzuolarrak euren historia berreskuratzekotan dabiltza. Udaleko Euskara Zerbitzuak herriko aspaldiko jolasak, ahoz-aho jasotako kantak, kontuak, esaerak etab. berreskuratzeko beka plazaratu du. Behin lan hori egin ondoren, ateratako emaitzak "oporretan euskaraz" kanpainan praktikan jartzeko asmoa dago, herriko umeek aintzinakoen jokuak ezagutu ditzaten. Beka egiteko 250.000 pezetako dirulaguntza izango da. Dudarik gabe ideia polita, beste hainbat tokietan ere egin daitekeena eta egin beharko litzatekeena gainera.




100 SERIEKO ROVER BERRIA

# ROVER HANDIEN INDAR GUZTIA.

Miresgarria, 100 serieko Rover berria. Txikia, baina Rover handien indar guztiarekin. Teknologiarik aurreratuena du bere K serieko motore berrian -16V GTi-analeazio arinaz egina 95CVko indarra eman liezaiokeena.

Eta zuri, eskatu nahi diozun guztia. Zeu bezain aparta du bere ekipamendua.

Ausartu eta helduiozu. Rover berria da 100 x100. *




100 SERIEKO ROVER BERRIA

ROVER 100 x 100

ROVER

ROVER CREDIT

* Azken salneurri gomendatua, BEZ eta garraio-gastuak barne.
Ekipamendua: Erloju digitala. Atzeranzko ispilua eskuinean ere. Bira-kontadorea. Ixte zentralizatua. Aleaziozko llantak. Aurreko lehioen jasogailu elektrikoak. Atzean spoiler-a. Atzean ere segurtasun-uhalak. Esarleku deportiboak. Doikuntza lunbarrra. Atzeko eserleku tolesgarria 60/40.

❑ **EA**

Aurtengo Aberri Eguna Gernikan izango dela jakin arazi nahi die Arrasateko Eusko Alkartasunak bere kideei. Hori dela eta, autobusak jarriko ditu Garibai plazatik goizeko 11etan irtenda. Bidaiarekin batera bazkaria izango da, eta lekua gordetzeko arratsaldeko 7etatik 8etara bitartean alkartetxera joan edo 79 64 53 telefonora dei egin dezakezue.

❑ **Bela ikastaroa**

Hondarribiko Bela Eskolak astebururko ikastaro praktikoak antolatzeko proposamena luzatu dio Arrasateko Gazte Zerbitzuari. Lojamendua herri hartako aterpetxean izango litzateke eta prezioa 10.000 pezeta inguru. Interesatuek Garibai etxeko bulegoan eman dezakete izena (edo 77 00 65 telefonora dei eginaz) talderik osa daitekeen ikusi eta egunak zehazteko.

❑ **Telebista pribatuak**

Telebista kate pribatuen hedapena dela eta Euskal Herriko ia herri guztietara iritsiak dira telebista berri horien seinaleak, baina badirudi Arrasate azkenetarikoa izango dela. Bergaran berehalakoan sartuko dute eta Deba Behean ere azkar izango den arren, Arrasatek badirudi apirila baino beranduago arte itxaron beharko duela.

❑ **Kultur trukaketa**

Arrasateko Udaleko Gazte Batzordeak Kataluniako Alto Panades deituriko eskualdearekin kultur trukeak hasteko aukerak izango ditu. Eusko Jaurlaritzak Kataluniako hainbat lekutatik eskaera jaso zuen hemengo eskualderen batzuekin harremanetan jartzea nahi zutela eta. Horren ondoren, Deba Garaiaari luzatu zitzaion eskaintza, eta Gazte Zerbitzua informazio gehiagoren zain dago.

# Txandaka

## DISTIRARIK GABEKO EREDUA



**Pello Salaburu (*)**

Arrasate Press-en urtebetetzea da gaur. Era askotako urtebetetzeak izaten baitira, eta 100. zenbakiraino iritsi ahal izatea ez da urtebetetze horietako txikiena. Zorionak, hortaz, aldizkari hau egin dutenei eta zorionik beroenak, nola ez, astekari hau astero-astero eskuetan hartu eta irakurtzeko astia aurkitzen dutenei ere. Denok bai baitakigu azken hitza irakurleak duela beti. Eta irakurleek ongi aski irakatsi digute orrialde hauek badutela arrakasta, badutela herritarrengana hurbiltzen den zerbait.

Azken urteotan sekulako barrunbea ibili da euskal prentsaren inguruan. Horren ondorioz sortu zen orain dela hilabete batzuk *Egunkaria* eta, oraingoz inork ez badu ezertxo ere esaten, badirudi Eusko Jaurlaritzak ere bultzatuko duela beste egunkari bat, nahiz denek dakigun Euskal Herrian ez dela lekurik bi euskal egunkarirentzat. Nahi nuke hemendik urte batzuetara biek bizirik segi lezaten, berriki sortua denak eta oraindik jaio gabe den horrek ere, hori izango bailitzateke euskaldungoaren osasun onaren seinale. Baina nere dudamudak agertu izan ditut gai honetaz behin baino gehiagotan. Eta orain ere, eguzkirik distiratsuenak ez dizkit zalantza ilun horiek behar bezala argitzen.

Egia esan, ez da egunkaririk izango irakurlerik ez baldin bada. Egunkariak euskaraz irakurtzeko irakurleak izatea, hala ere, ezinbesteko baldintza izatetik baldintza askia izatera... bada hor tartea, irakurleak ez baititu hain erraz aldatzen ohiturak eta sarritan nahiago izaten baitu eskura dituen, eta urteetan zehar izan dituen, erdal egunkariekin segitu. Besteak beste, gure erdal egunariek dituzten baliapideak kontuan harturik, ez baita hain gauza erraza konpetentzian sartzea. Maila bereko konpetentzian sartzea, jakina.

Alabaina, Arrasate Press bultzatzen dutenek bestelako bidea aukeratu dute, gure inguruan gertatzen diren (eta egunkari handietan aintzakotzat oso nekez hartuko diren) kontuen berri emanez eta berri hauek herriko auzo eta xoko guztietara hedatuz. Hori da nere ustez, irakurle euskaldun berriak egiteko modurik egokiena. Hori da beste lekuetan segitu beharko litzatekeen eredua eta hori, neurri batean, prentsak tradiziorik handiena duen lekuetan ere egiten duena. Hemendik urte batzuetara irakurle berriak nahi baditugu, euskaraz edozein gai irakurtzeko gai izango diren irakurle euskaldunak aldikari hau aurrera ateratzen dutenen eredua segitu beharko da. Eta hau da, nik uste, herri-aginteek bultzatu beharko luketena ere. Nahiz, agian distirarik gehiegi erakusten ez duen.

*(*) EHU-ko katedraduna eta euskaltzaina*

**BURGALES JATETXEA**
**Jaki goxoak eta giro atsegina**
**Durana 12, ARETXABALETA**

**Osorik pub**
Ignazio Zuloaga kalea Arrasate



Eraikin berriren bat ere egingo da akaso

# Eskola Politeknikoan asmo berriak

## *Goi injinerutza ikasketak emango bi urte barru*

Eskola Politeknikoak Goi Injinerutzako ikasketak ematen hasteko asmoa du bi urteren buruan eta orain arteko Injinerutza Teknikoko ikasketen jarraipen gisa. Eskolako iturriek adierazi dutenez, Iturripeko kirolgunea aldatu ondoren hutsik geratuko den gunean eraikiko liratekeen etxe berri batean kokatuko lirateke goi mailako ikasketak. Ikasketa berezi horiek eskaintzeko asmoa, Unibertsitateko Ikasketen Erreformarako Legeak ezarritako bigarren zikloaren sorreraren ondorioz etorriko litzateke, Injinerutza Teknikoa lehen zikloa izanik.

Bi urteren buruan lortu nahi den asmo hori betetzeko, kooperatiba taldearen eta Arrasateko Udalaren laguntza izango dute, aurtengo aurrekontuetan sartu den bost milioiko dirulaguntzarekin. Horrezaz gain, garrantzi berezia ematen zaio Eskolan Ikerlan bezalako euskarri teknologikoak izateari.

Eskola Politeknikoak bertako ikasketa planak euskalduntzeko daraman plangintzaren barruan, bestalde, 29 ikastunitate daude euskaratuta oraingoz, Joseba Etxeberria irakasleak Elhuyarrekin batera egindako lanaren ondorioz. Marrazkigintzakoak dira 11, pneumatikari buruzkoak 2 eta teknologiako gai ezberdinen ingurukoak gainerakoak.

Injinerutza teknikoan, oraingoz, lehen ikasturtean ikasketak euskaraz egiten dituen talde bat dago, eta hurrengo ikasturteetan espezialitatetako talde euskaldunak sortu ezina da oraingoz gehiago ez hedatzeko muga. Material gehiago prestatzen jarraitzeko, hala ere, heziketa teknikoak erreformaren ondoren nola geratzen diren ikusi arte itxaron egin beharko da.

Bien bitartean, eta irakaslegoa euskaraz eskolak ematen trebatzeko, alfabetatze tekniko ikastaroa egin berri dute Eskolako hamalau irakaslek, 45 orduz.

# Usteak uste

Hutsetik ehunerako bidea gogorra eta emankorra izan da. Atzean gelditu dira 1988ko lehen zenbaki haiek garaiz ateratzeko kazetariek egin behar izan zituzten gaupasak. Harez geroztik Arrasateren bilakaeraren lekuko eta partaide bihurtu da Arrasate Press, mondragoetar asko eta askoren informabide, entretenigarri eta mintzagai.

Ehun zenbaki hauetan APk izan duen arrakasta arrazoi askori zor zaio. Isilean eta lanean etengabe egon den talde eragile, irudipentsu eta ausartari, proiektuari babesa eta indarra eman dion AEDri, azken honek eskaintzen zion ezohizko formula onartzeko eta laguntzeko argitasuna izan zuen Udalari, bi urte t'erdi hauetan APen lanean jo eta ke ihardun duten kazetari, maketagile eta administrari gazteei, euren produktuen publizitaterako APko orriak erabili dituzten iragarleei, astero zein hamabostero beren artikulu eta argazkiekin orri hauek aberastu dituzten kolaboratzaileei, Eusko Jaurlaritzak eman dituen dirulaguntzei eta, guztien gainetik, astekari hau irakurriz eta erabiliz, bere egin duten irakurle finei.

Denoi eskerrik beroenak eta zorionak.

*Joxe Aranzabal*

LA UNION
Garaje elektro-mekanikoa
Agentzia ofiziala
*Tailerra: Zaldispe 2,*
*Erakusketa: Sancho Abarka 6,*
ARRASATE Tfnoa: 79 97 12

ALFA ROMEO

LEKIN
Ileapaindegi mistoa
Erguin 15, etxebehea.
Tfnoa: 79 80 23 ARRASATE



Parrokia artxibategia antolatuko da aurtengo bekarekin

# Joxe Letona beka

## *Maiatzaren 3a baino lehen eskaerak aurkeztu*

"Arrasateko Parrokiako artxiboa antolatu eta katalogatzea" izango da aurtengo Jose Letona beka, Arrasateko Udaleko Kultura Batzordeak deituta.

Ikerketa egiteko dirulaguntza 750.000 ptakoa izango da. Honako hauek dira eskatzaileek bete beharreko baldintzak: bekaren jasotzaileak norbanakoak zein elkarte eta taldeak, eta ikerketa egileek Filosofia eta Letretan Historia adarrean lizentziatuak edo karrera horretako azken ikasturteko ikasleak izango dira. Baldintza hori bete ezean, curriculum egokia eta egiaztatua izan beharko dute.

Lanak 18 hilabeteren buruan izan beharko du amaituta, eta eskabideak aurkezteko epea 1991ko maiatzaren 3an amaituko da. Eskaerarekin batera lan proiektua aurkeztu beharko du eskatzaileak.

Epaimahaia honako hauek osatuko dute: Alkatea edo ordezkoren bat lehendakari, Kultura batzorde burua, Parrokoa eta Eusko Ikaskuntza eta Arrasate Zientzia Elkarteko ordezkari bat.

### ❑ Mojategi

Polikiroldegiaren atzean dauden Mojategiko baratzen erabiltzaileekin adostasunetara iristen ari da Udala. Guztira 72 lurzati ditu Mojategi baserriaren jabetzako sailak, eta horietako zenbaiten jabeek onartu dute dagoeneko Udalak eskainitako 30.000 ptako kalteordaina. Gogoratu Motategi inguru horietan kirolgune garrantzitsua egitko asmotan dabilela Udala, eta erabiltzaileekin akordioren batera iritsi bezain laster hasiko direla lanak.

### ❑ Josgintza

Famili eta Gizarte heziketarako zentruak josgintza eta ikastaroa emango du datorren apirilaren 19tik aurrera, 40 ordutako ikastaroa guztira. Eskolak astelehen eta asteazkenetan izango dira, Rosa Martinezen eskutik. Izen ematea martxoaren 27a baino lehen egin behar da, Santa Teresako egoitzara joan edo 79 04 59 telefonora dei eginaz.

### ❑ Errepidea eskas

Arrasateko Udaltzaingoak argazkiz osatutako txostena aurkeztu du udalbatzaren aurreran Gasteiz-Ondarroa errepidearen egoera eskasa erakusteko.

### *JAIOTZAK*

Eguren Lazkano, ***Ainhoa***, martxoaren 12an.
Aranzabal Merchan ***Aitor*** eta Aranzabal Merchan ***Markel***, 14ean.
Etxebarria Rubi, ***Ane***, 14ean.
Casado Agirreurreta, ***Ander***, 15ean.


VICTOR RUIZ MELGAR
Pintorea
Erdiko kale 32, 4.
79 12 63 (9etatik 1etara eta 4etatik 8etara)
ARRASATE

IBARRA Garajea S.A.

EBRO
NISSAN
*Garajea*
*Automobil-konponketa*
*Garabi zerbitzua*

LURRINDEGIA
ERTZ
OPARIETAKO ARTIKULOAK
Ferrerias 28, B. Tfnoa: 79 08 70 Arrasate

Monte taberna
Maalako errabala 11, Tfnoa: 79 20 56

Zotz-Motz

Zotz-Motz

Zotz-Motz

Zotz-Motz




Arrasate Pressek **Renault Clio** hau emango dizu.
Parte hartu Zotz-Motz en eta zorte on!

Zotz-Motz

Zotz-Motz

Zotz-Motz

**Ekomovil**

Kontsumitzaileen Udal informazio bulegoak CADEM elkartearekin batera antolaturik martxan dagoen Ekomovil programa arrakastaz ari da burutzen. Apirilaren 19an amaitu arte, guztira 492 ibilgailu pasatzea espero zen, eta apirilaren 2 eta 3an itxita egongo da azterketak egiteko tailerra, aparatuen mantenurako jai hartuko dutelako. Orain arte 348 txartel banatu dira, eta 264 ibilgailu aztertu. Apirilaren 19ra arte ez da jakingo ibilgailu akastunen kopururik eta aztertutako ibilgailuetan gehien agertu diren akatsak zeintzuk izan diren.

**Reflexologia podala**

Arrasateko Yoga Elkarteko zuzendariak, Jose Luis Armendiak emanik, reflexologia podalari buruzko ikastaroa antolatzeko asmoa du elkarte horrek. Apirilean ez bada, datorren udazkenerako atzeratuko litzateke ikastaro trinko hori, 5 hilabetetan zehar Portugaleten egiten ari den ikastaro baten ondoren.

**Umeentzako Yoga**

Yoga Elkarteak dagoeneko umeentzako yoga ikastaroak ematen baditu ere, aurrerantzean taldeak handitu nahi direla eta, deia egiten dute elkarteko irakasleek, interesatuek ikastaro horretara semealabak apunta ditzan. Klaseak larunbat arratsaldetan izango dira, 4etatik 5.30etara Altamirako lokalean, eta Enkarna Mendez irakasleak emango ditu.



Tresneria erakusketak eta ikastaroak emango dituzte

# Irratiaren lagunak bildu

## *Bailadako irratizaleek talde berria sortu*

Deba Garaiko Irratiaren Lagunak Elkartea sortu dute Aretxabaleta, Arrasate eta Oñatiko irratizale batzuk, orainarteko irratizaleen taldeek duten erakunde izaera aldatzeko asmoz. Agintari eta kuotarik gabekoa izan nahi du taldeak, irratia bezalako zaletasuna lagunarteko giroan bizi nahi dutelako. Taldeak eman berri du izena erregistroan, eta oraingoz 60 lagun dira partaide, bailarako edozeinentzat irekita egon arren.

Azeri harrapaketak, 24 orduko txapelketak, errepideko laguntza, herri arteko xake txapelketak, irratizaletasunari buruzko ikastaroak eman eta materialak utzi, atzerriko herriekiko harreman lehiaketak, argazki rallyeak, eta inguruko herrietako jaietan ekintzak antolatzea lirateke talde honen egitasmoa.

Oraingoz bilera batzuk egin dituzte taldekoek, baina jende gehiago hurbil dadin hil honen 24ean egingo dute beste bilera bat, San Andres auzoko alkatetzan, eta apirilaren 6an burutu asmo dute lehen azeri harrapaketa.

BASABE JATETXEA
Menu eta afariak
Boda eta banketeak
ARETXABALETA

ECUADOR
Kontzezino 2,
Tfnoa: 79 14 06
ARRASATE

URONDO elektrizitatea
* Elektrogaiak
* Instalazioak
* Automatismoak
* Argiztapena
* Bobinaketak
* Proiektuak
Nafarroa etorbidea 11, Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

SAMEGO GARBIKETAK
Uriburu 24,
Tfnoa: 79 70 39
ARRASATE




Hiru haritz landatu zituzten

# Errasti anaiei omenaldia

## *Hil zirela urtea bete denean, lagun eta familiak*

Omenaldi hunkigarria esakini zieten familiarteko eta lagunek joan den larunbatean Errioxan istripuz orain urtebete hil ziren Errasti anaiei. Larunbata eguerdiko 12etan bildu ziren 100 bat lagun Mendiolako zelaietan euri zaparrada handiaren azpian, eta hiru haritz landatu zituzten, eta ondoren komunikatua eta poema irakurri.

Bertan bildutakoen esanetan, omenaldi horren helburua hiru anaiak ezagutu izanagatik eskerrak ematea zen, eta ezagututakoak ahaztetik datorrela lotsa, eta guzti hori adieraziaz irakurri zuten komunikatua.

Bittor, Juan Jose eta Pedro iazko martxoaren 17an hil ziren Errioxako Briones herrian, 32, 36 eta 35 urte zituztela. Familiarteko baten eztaietara zihoazela, kamioi bat jo zuten. Pedrok Mendiolako merenderoan egiten zuen lan, Juan Josek Obea enpresan eta Bittorrek Arrasateko Udaletxean udaltzain.

● Dagoeneko ez dago misteriorik. **Jose Mari Loiti**, 52, da EAJ alderdiaren zerrendaburua datozen udal hauteskundeetarako. Jose Mari Oñatiko *Oñacar* Koop. elkarteko zuzendari gerentea da. S. Viator ikastolako lehendakari izana eta Ularcoko hirigintz injinerutzako zuzendari ohia. Bigarrena **Jabier Aresti** UCEMeko ekonomista izango da eta hirugarrena Juan **Jose Uriarte "Bermi"**, Diarako diseinatzailea. Laugarrena emakumea izango da seguruenik



Jose Mari Loiti (EAJ)

● **Nekane Iglesias** S. Andresko abokatua izango da itxura, denez, PSOEk Arrasateko alkatetzarako aurkeztuko duen zerrendaburua. Orain artean Donostian ibili da lanean.

● Partidu guztiek asteburu honetarako erabakita izango dituzte zerrendak. EAn oraingoz **Pedro Mari Ruiz de Azua** da argi errepikatuko duen bakarra. HBn **X. Zubizarreta, Jose Agustin Ibarluzea "Txispas"** eta **Ino Galparsoro.** EEren Bergarako hautagai nagusia, bestalde, **Albaro Esparza** mondragoetarra izango omen da.

ANALISI KLINIKOAK,
LABORATEGIA
I. Laborra Erdozain
(Lagun Aro, Diputazioa, Previasa, Asisa, Capisa)
GINEKOLOGI KONTSULTA
Zerkaosteta 17, etxabehea, Tfnoa: 79 20 18
ARRASATE

IRATI
Ferrerias kalea
Tfnoa: 79 71 80


ARRASATE PRESS

Arrasate 1990eko Abenduak 28, 89. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean

Mi apuesta: la prensa en vasco

HOTZ-BERO
KLIMATIZAZIOA
Kanpantorpea 2, Tlnoak: 79 70 98 eta 79 67 54
ARRASATE

- AIRE GIROTUA
- BEROKUNTZA
- ERAUZKETA (Estrazioak)
- ARAZKETAK
- MANTENUA

**Inuxente egunean** inuxentekeria bat baino gehiago idatzi genituen aldizkarian. Baina zuzendariari ere ziria sartu nahi izan genion. Inprentakoekin bat eginik, ale batzuei azala aldatu, bere argazkia jarri, eta "Mi apuesta: la prensa en vasco" eman genien izenburu. Sorpresa ederra hartu zuen ale guztiak berdin zeudela esan genionean! Ez zuen ez, gure Joxek, argazkiko aurpegia jarri.



Arrasate Press-ek 100. zenbakia kaleratzeak uste baino ohiartzun handiagoa izan du. Euskal Telebistakoek ere 100. ale horren berri nahi izan zuten *Terminus* programan, Elene Lizarraldek zuzentzen zuen programan hain zuzen. Grabazioa egiteko Olga Untzilla kazetaria, eta Iñaki Telletxea eta Javi Novelle kamaralariak etorri ziren. Pare bat ordu baino gehiago pasatu zuten erredakzioan, eta alea egiteko prozesuaren zati handi bat grabatu zuten.

**Jose Luis Azkoaga** eta **Irune Azkoaga** iazko urtearen amaieran ezkondu ziren, azaroaren 24ean hain zuzen ere. Denbora dezente pasa da, eta halakoetan esan ohi denez, *"berandu, baina seguru"*. Zorionak!



Epelde

Parques Y Jardines



PARKE ETA LORATEGIEN SORKUNTZA

LORAZAINTZAKO MANTENIMENDUA ORO HAR

LANDARE-BIRSORKUNTZA HIDROEREINTZAZ

*Casa-Torre kalea. Tfnoa:94-681 90 82 ABADIÑO (BIZKAIA)*


Jesus Mari Herrasti


Jose Mari Ormaetxea

**▲-▲**

Joan den astean besterik esan bagenuen ere, Jon Azua Industri Sailburu berriak Industria saileko sailburuordetza bat eskaini zion **Jesus Mari Herrasti**ri. **Jose Mari Ormaetxea**ri berriz SPRIko lehendakaritza. Ez batak ez besteak ez zituzten proposamenak beren horietan onartu. Azkenean Ormaetxea SPRIko lehendakariorde exekutiboa izango da, berak hala nahita.





**▲-▲**

Hamaika bitxikeria iristen da gure esku artera! **Pepe Mercader Etxaburu Chanchote** arrasatear ezagunaren eztaietako argazkia dugu hori. Eta beste argazkikoa bere laugarren iloba, Jon, urtarrilaren 13an jaioa. Argazki xelebre hori atera zioten zazpi egun besterik ez zituenean, txori, katamixar eta eskupetaz inguraturik. Txkitatik sartu nahi zaletasuna...

## *Izen* PROPIOAK

● **Txaro Jauregi**, 25, arrasatearra izango da aurrerantzean Deia egunkariaren Arrasateko korrespontsala. Orain arte Mikel Oteizak burututako lana kazetari honek hartuko du bere gain. Publizitate arloan Kazetaritza ikasketak Leioako Fakultatean egin ondoren, gaur egun Acualden kontsumitzaileen erakundean ari da lanean.

● **Manolo Sebastian**, 54, zamorarra, Alderdi Sozialistako Asanblada nazionaleko partaide izango da aurrentzean. Manolo Sebastian Arrasateko Udaleko zinegotzia da legegintzaldi honetan, eta Ferixalekuko eskolako zuzendaria.

● **Josu Arkautz**,33, ustez ETAkide mondragoetarra polizia frantsesak Miarritzen harrapatu zuen joan den astelehenean. Almen ikastolan ikasitakoa, 1983an Iparralderaihes egin aurretik S. Andres eta Garagartzako Fagorren egin zuen lan, katean. Paris inguruko Fresnes espetxean dago.






# Egunero egiten dira astekariak

**_Ehun ale. Ez da gutxi. Kalean batek baino gehiagok behin baino gehiagotan, "nola moldatzen zarete, astero astero ateratzeko?" galdetu izan du. Hona hemen erantzuna._**

***Ostegun arratsaldea da. 99. aleko azala oraintxe bertan bidali dugu irarkolara, eta zigarro bat erretzeko denbora hartu ondoren Arantzazu, Josune, Joxe, Goio, eta bostok 100. alea prestatzeko bildu gara. Ale berezia denez, Josunek publizitate gehiago aurkitu beharko du eta Goiok maketazioan aldaketak egin beharko ditu. Lan banaketa egin eta gero, erreportaia niri dagokit. Gaia? Arrasate Press***

Nondik helduko ote diodan pentsatzen nagoen bitartean, ia astero bezala, bisitan datozen ikastetxeren baten umeei lantokia eta lana egiteko modua erakusten dizkiegu. Sarritan izaten ditugu bisitak eta gustora hartu gainera, nahiz eta batzuk ostegun arratsaldeetan edo ostiraletan etorri beharrean, astean zehar etorri.

Ostirala edo datozen egunetarako zita batzuk egin ondoren, kolaboratzaileak bidalitako idazkiak pikatzen ditugu. Beti bezala, lehenik Velezen *Luma Zorrotza* eta *Horoskopoa* iritsi dira. Gainontzekoak geroago etorriko dira. Arratsaldeko seiak dira, ondorioz hanka eta kalera.



Banatzaileak ostiral arratsaldero AEDn biltzen dira lanari ekiteko.

## Ostirala, jai usaina

Goizeko 8.30ak jota. Bulegoan sartu naizenerako hantxe daude gainontzeko guztiak. Goio eta Arantzazu bezperan irarkolatik ekarritako argazkiak artxibatzen ari dira. Gezurra badirudi ere, denbora eta pazientzia eskatzen duen lana da hori, erredakzioko inori gustatzen ez zaiguna. Baina beste hainbat gauza bezala, egin beharrekoa.

Argazkiak artxibatzen dituzten bitartean, egunkaria irakurri eta gero, astean zehar erabiliko ditugun karreteak kargatzen hasi naiz. Lan honek ere, uste baino denbora luzeagoa eramaten du, dozena-erdi karreterako ordu erdi bat, gutxi gorabehera.

Inkestak egitera ateratzen gara. Jendeak ez du erantzuteko eragozpenik izaten, baina argazki kamara ikusten dutenean deabrua ikusi dutela dirudi, presaren aitzakia jarri eta erdi-korrika ateratzen dira. Eskerrak batzuei ez zaiela axola.

Ostiral arratsaldea berezia izaten da, aurreko alearen zain egoten gara eta. AEDra sarritan deitzen dugu, ea iritsi den galdetuz. Alea iristen denean, guretzat ere sorpresa izaten da, ustekabean egindako hanka sartzeak ikusten ditugulako.

Plenoa omen dago arratsaldeko 7etan. Hauek ere ez dira espabilatuko, nola daiteke ostiral batean eta arratsaldeko zazpietan plenoa jartzea? Horrenbestez, astelehenera arte, agur Ben-Hur.

## Astelehena beti astelehen

Ohi denez, asteburuko lorratzak zeharo kendu barik agertu gara lanera, baina ez dago aitzakiarik, aldizkaria ostegunerako irar-




Karrotxoa goraino betetzekotan gabiltza.

kolan egon behar da. Beraz, mugitu beharra dago.

Nik neuk astelehenetan ez diot jaramon handiegirik egiten aldizkariari, telebistako programa prestatzen joaten zaidalako denbora,

**Ostegunetan, eguerdi aldera zoro-etxea dirudi erredakzioak**

baina besteek bai. Arantzazuk Agoteri *Elkarrizketa* egin dio, *Txutxumutxu*ez ere enteratzen hasi da, eta asteko berriak nondik etor daitezkeen ere begiratzen du. Goio ere gauzak eskatzen hasia da, maketatzen hasteko eta gutxienez *Autoaren Jabea* eman beharko diot. Besteak bezala, Joxe ere mugitzen hasi da. Goiza Irakasle Eskolan pasatu du, baina arratsalderako *Fotozaharra* eta *Usteak Uste*rekin etortzen da. Bitartean, Josunek falta diren iragarkiak dakartza. Nobedade gehiegirik gabe, 6etan atetik kanpora.

## Astearte eta asteazkena

Aldizkarirako egun emankorrenak dudarik gabe, ordu gehien sartzen ditugulako noski. Astearte arratsaldean Joseba, argazkilaria, etortzen da, futbitokoak eta gainetik egin ditugun argazkiak errebelatzera eramateko. 100. zenbakia dela eta, azalerako argazki bereziren bat behar duenez, erdi-zoratu gaitu, "han jartzeko, postura aldatzeko, kamarara begiratzeko..." Gertu inprimategitik ere lehen deiak jasotzen ditugu, ea noiz bidaliko diegun futbitokoa eta ahal badugu zerbait gehiago ere bidaltzeko esanez.

Gauzak borobiltzen goazen heinean Karmelo eta Joxeren artean zuzenketak egiten joan dira. Asteazkenerako gehiena menderatuta daukagu, *Orain eta Hemen*-en bat ezik, *Laburrak* eta, ohituraz ostegunerako uzten ditugun *Agenda*, *Auzo-Herriak*... eta kasu honetan baita erreportaia ere.

## Osteguna, Arrasate estress?

Goiz etorri beharra dago, guztia inprentara bidali behar da eta. Poliki-poliki azken xehetasunak egitea izango litzateke gaurko lana, baina zuzenketak bizkor datozela eta inprentatik, ahalik eta bizkorren bidaltzeko erregutzen digutenez, mezulariak berandutzen direla, eta azken orduan aldaketaren batzuk egin beharra dagoenez, ez da arraroa bakoitzak bereari lehentasuna eman nahi izatea. Ondorioz, eguerdi aldean *Azala*rekin hasten garenerako, zoro-etxea dirudi honek. Halako batean:

— "eta *Erreportaia*?"

— "ba pentsatutakoaz ez badot idazten..."


LASA-AGUILERA
aholkularitza
Laborala • Fiskala • Kontablea

- Lan-kontratuak
- Nominak
- Gizarte-aseguruak
- Babes juridiko-soziala
- Elbarritasuna
- Erretiroa
- B.E.Z.
- Errenta aitorpenak
- Dirulaguntza ofizialak
- Aseguru orokorrak

Andra Mari auzunea 3, Tfnoa: 79 29 26 ARETXABALETA

**CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA**



# Euskeraren Geroa, Geurea

Gure hizkuntzaren geroa sendotu behar dugu. Guraso eta belaunaldi gazteen arteko zubiak eraikiz kultura indartuz, urrats berriak emanez, gure nortasuna aldarrikatuz. Euskera geurea da, Euskal Herri osoarena, bere normalkuntza eta berreskurapena guztion ardura den bezalaxe. Horretantxe dihardugu.

Euskadiko Kutxa

CAJA LABORAL POPULAR
LAN KIDE AURREZKIA

# Zortzi talde aurrera

## Zaldibarko txapelketaren bigarren fasea bukatu da. Zortzi sailkatu eta gainerakoak kanpora.



Argazkiak erakusten duen bezala, azken unera arte airean egon da baloia. Argazkiko jokalari biek egiten duten moduan, euren taldeek egin zuten moduan, gainontzeko taldeek ere sailkatzearren ahalegin ugari egin dituzte. Azkarrenek eraman dute.

ARRASATE KIROLAK
Kontzeziño 8, Tfnoa: 79 46 12

IKER
Mxey
FAGOR
SUKALDE-ERAKUSKETA: Udala enparantza z/g, Tfnoa: 79 00 43
BAINUGELA-ERAKUSKETA: Zarugalde 52, Tfnoa: 79 99 42

## A taldea

| A | Partiduak Jokat. | Irab. | Ados | Gald. | Golak Alde | Aurk. | Ptak. Ttak. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Argi ibili | 7 | 6 | 1 | 0 | 41 | 13 | 13 |
| Artzankos | 7 | 5 | 1 | 1 | 37 | 20 | 11 |
| Camerun's | 7 | 5 | 0 | 2 | 20 | 20 | 10 |
| Bar Artano | 7 | 3 | 3 | 1 | 30 | 22 | 9 |
| Zortzikin nahiko | 7 | 3 | 0 | 4 | 25 | 38 | 6 |
| Kriskibalda | 7 | 2 | 1 | 4 | 26 | 28 | 5 |
| Potrozorri | 7 | 1 | 0 | 6 | 14 | 45 | 2 |
| ~~Autovia patutia~~ | 7 | 0 | 0 | 7 | 0 | 7 | 0 |

## B taldea

| B | Partiduak Jokat. | Irab. | Ados | Gald. | Golak Alde | Aurk. | Ptak. Ttak. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Adelaida | 7 | 4 | 2 | 1 | 34 | 21 | 10 |
| Arrasate Kirolak | 7 | 4 | 2 | 1 | 18 | 16 | 10 |
| Fosforo's | 7 | 4 | 1 | 2 | 21 | 19 | 9 |
| Golfos Persicos | 7 | 4 | 1 | 2 | 17 | 17 | 9 |
| Bizkorrak | 7 | 3 | 1 | 3 | 24 | 18 | 7 |
| Lorategi-Potroak | 7 | 2 | 1 | 4 | 21 | 30 | 5 |
| Sokoa 600 | 7 | 1 | 2 | 4 | 35 | 37 | 4 |
| Alperrak-Aldatz | 7 | 0 | 2 | 5 | 20 | 32 | 2 |

## C taldea

| C | Partiduak Jokat. | Irab. | Ados | Gald. | Golak Alde | Aurk. | Ptak. Ttak. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Sum. Ind. Ugarte | 7 | 6 | 1 | 0 | 38 | 11 | 13 |
| Bar Kajoi | 7 | 5 | 0 | 2 | 34 | 22 | 10 |
| Zuloak | 7 | 4 | 2 | 1 | 18 | 13 | 10 |
| Los Heredia | 7 | 3 | 0 | 4 | 27 | 29 | 6 |
| Diego Antonio | 7 | 2 | 2 | 3 | 26 | 31 | 6 |
| New Laso Arregis | 7 | 2 | 1 | 4 | 20 | 40 | 5 |
| Pepelus | 7 | 2 | 0 | 5 | 34 | 36 | 4 |
| Rayo Vatica-no | 7 | 1 | 0 | 6 | 17 | 31 | 2 |



**Cameruns**. Ezkerretik–eskumara. Zutik: Jesus Jara, Angel Mari Capellan, Jose Mari Sagasta, eta Esteban Tena Makurtuta: Miguel Angel Garcia, Felix, eta Alex Martiarena.



**Sokoa 600**. Ezkerretik–eskumara. Zutik: Endika Murumendiaraz, David Amazorrain, eta Jose Luis. Makurtuta: Joxe Uriona, Piti, Mikel Iria "Sopas", eta Alberto Egia.

a.eme..interiores
GARIBAI 9
20 500 ARRASATE
(GIPUZKOA)
Tlfnoa: 943-791503
Telefax: 791489

# Guzti hauei esker atera dira 100 zenbakiak

* Kolaboratzaile ohia



**Agote**
**Jose Luis ***
Maketatzailea



**Alzola**
**Nerea**
Klarion taldeko partaidea



**Andueza**
**Jon ***
Kazetaria



**Arana**
**Goio**
Maketatzailea



**Arana**
**Mikel**
Hankamotz taldeko partaidea



**Aranzabal**
**Joxe**
Zuzendaria



**Aranbarri**
**Federiko**
Morokil taldeko partaidea



**Arejolaleiba**
**Julen**
Atalataikoan taldeko partaidea



**Arejolaleiba**
**Juan Luis**
Banaketaren arduraduna



**Arregi**
**Jon**
Hankamotz taldeko partaidea



**Arregi**
**Mikel ***
Artea



**Arrieta**
**Xabin**
Fotozahar



**Azkarate**
**Juan Luis ***
Kazetaria



**Bilbatua**
**Marian**
Klarion taldeko partaidea



**Elexpuru**
**Juan Martin ***
Zelebrekerixak



**Elortza**
**Jerardo ***
Fotozahar



**Galañena**
**Mila ***
Horoskopoa



**Garai**
**Jexusmari ***
Famauen ahotik



**Garro**
**Amaia ***
Publizista



**Garro**
**Iñazio**
Publizista



**Irigoien**
**Iñazio ***
Kontabilitatea



**Irizar**
**Mikel**
Musika, Automoto eta Telebegi



**Isazelaia**
**Karmele ***
Kontabilitatea



**Jauregi**
**Blanka**
Horoskopoa eta Astegazte



**Kortabarria**
**Beñardo**
Kazetaria

**egizabal**

*Bidekurutzeta 13,*
*BERGARA*

*Elisabete*




Salterain

Ezagutu itzazu P.V.C. ren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotzik, ez berorik, ez soinurik ...

KOMMERLING

P. C. V.zko LEIHOGINTZA

Gral. Garro, 2 eta Uribarri Etorbidea, 20.
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 99 58

20.500 ARRASATE

Construcciones ARRASATE S. L.

Udalpe 5, Etxabehea. Erguin auzoa. Tfnoa: 79 04 46
ARRASATE

Eslu
ileapaindegia
Tfnoa: 79 37 88
Arrasate

FELIPE MADINA
ZURAK
Zarugalde 40, Arrasate 79 13 78

Osorik pub
Ignazio Zuloaga kalea Arrasate

ARRASATE
PRESS

# Hileko agend

| ASTELEHENA | ASTEARTEA | ASTEAZKENA | OST UI |
|---|---|---|---|
| **1**<br>• Goardiako farmazia. Egunez: Musakola.<br>Gauez: Camacho (Bergara). | **2**<br>• Goardiako farmazia. Egunez: Maala.<br>Gauez: Puy (Bergara) | **3**<br>• Erakusketa: Elizabet Altunaren eskulanak. 12ra arte. Monterronen.<br>• Goardiako farmazia. Egunez: San Andres<br>Gauez: Guallar (Bergara) | • Goardiako fa Egunez<br>Gauez: Estell a) |
| **8**<br>• Familia eta Gizarte Heziketarako Zentrua. Hiru hilebetearen hasiera.<br>• Goardiako farmazia. Egunez: Maala<br>Gauez: Puy (Bergara) | **9**<br>• Goardiako farmazia. Egunez: San Andres<br>Gauez: Guallar (Bergara) | **10**<br>• Goardiako farmazia. Egunez: Ferrerias.<br>Gauez: Estella (Bergara) | **1**<br>• Goardiako fa Egunez<br>Gauez: Mozo a) |
| **15**<br>• Goardiako farmazia. Egunez: San Andres.<br>Gauez: Guallar (Bergara). | **16**<br>• Goardiako farmazia. Ferrerias. | **17**<br>• Goardiako farmazia. Iturriotz. | **1**<br>• Goardiako fa Egunez: |
| **22**<br>• Ikastaroa: Yoga hasiera. Yoga elkartea.<br>• Erakusketa: Tere Ormaetxearen zeramikak. Monterronen.<br>• Goardiako farmazia: Ferrerias. | **23**<br>• Goardiako farmazia: Iturriotz. | **24**<br>• Goardiako farmazia: Musakola. | **2**<br>• Goardiako fa Erguin. |
| **29**<br>• Goardiako farmazia: Iturriotz. | **30**<br>• Goardiako farmazia: Musakola. | | |

## ...da: APIRILA

**ARRASATE PRESS**

| ...STEGUNA | OSTIRALA | LARUNBATA | IGANDEA |
|---|---|---|---|
| **4**<br>...diako farm... Egunez: Iturriotz<br>...: Estella (...ra) | **5**<br>• Sexu zineari buruzko zikloa. Amaian. 22.30<br>.• Goardiako farmazia. Egunez: Maala Gauez: Mozos (Bergara) | • Firma bilketa: EKIk antolatuta. Portaloian.<br>• Erakusketa: Zaborrari buruz. EKIk antolatuta. Portaloian.<br>• Lehiaketa: Azeriaren harrapaketa. Irratizaleak.<br>• Udaberri-Uda moda desfilea. Amaian. 22.30.<br>• Eskubaloia: Arrasate-Usurbil. Musakola. 18.00.<br>• Saskibaloia: Centrajet Euskal Air-Argaray. Musakola. 19.30. | **7**<br>• Firma bilketa: EKIk antolatuta. Portaloian.<br>• Erakusketa: Zaborrari buruz. EKIk antolatuta. Portaloian.<br>• Futbola: San Andres-Alegria. Atxabalpe.<br>• Futbitoa Zaldibarren.<br>• Goardiako farmazia. Egunez: Santamaina Gauez: Camacho (Bergara) |
| **11**<br>...diako farm... Egunez: Iturriotz.<br>...: Mozos (...a) |  **12**<br>• Sexu zineari buruzko zikloa. Amaian. 22.30.<br>• Goardiako farmazia. Egunez: Erguin. Gauez: Camacho (Bergara) | **13**<br>• Ikastaroa: Masaje hobekuntza. Yoga elkartea.<br>• Txotxongilo emanaldia. "Gorakada: Atxis pum". Amaia. 17.00.<br>• Futbitoa Zaldibarren.<br>• Goardiako farmazia. Egunez: Santamaina Gauez: Puy (Bergara) | **14**<br>• Ikastaroa: Masaje hobekuntza. Yoga elkartea.<br>• Futbola: Mondra-Hernani. Atxabalpe. 16.45.<br>• Futbitoa Zaldibarren.<br>• Goardiako farmazia. Egunez: Maala. Gauez: Puy (Bergara). |
| **18**<br>...diako farm... Egunez: Musakola. |  **19**<br>• Sexu zineari buruzko zikloa. Amaian. 22.30.<br>• Goardiako farmazia: Egunez. Santamaina. |  **20**<br>• Txistu kontzertua. Amaian. 20.00.<br>• Futbito Txapelketako finala.<br>• Saskibaloia: Centraljet Euskal Air-Tabirako. Musakola. 18.00.<br>• Goardiako farmazia: Maala. | **21**<br>• Altamirako jaiak.<br>• Goardiako farmazia: San Andres. |
| **25**<br>...diako farm... Erguin. |  **26**<br>• Sexu zineari buruzko zikloa. Amaian. 22.30.<br>• Goardiako farmazia: Maala. | **27**<br>• Firma bilketa: EKIk antolatuta. Portaloian.<br>• Folk jaialdia: "The Varely Works". Amaian. 22.30.<br>• Eskubaloia: Arrasate-Jarrilleros. Musakola. 18.30.<br>• Goardiako farmazia: San Andres. |  **28**<br>• San Andreseko jaiak.<br>• Futbola: Mondra-Aurrera Ondarroa. Atxabalpe. 16.45.<br>• Goardiako farmazia: Ferrerias. |



Zeuk aukera

# Indarberritu den lehoi arrasatearra

RONEO

Lehoiak normalean urte asko hartzen baditu ere, Arrasateko lehoi honek 61 bete ditu eta indarberriturik beste hainbeste, behintzat, hartzea nahi lituzke.

•1929.ean **RONEO**k, hizkuntza ingelesa medio, bulegoetarako altzariak egiteari ekin zion. Bizkor eta indartsu bizi izan da orain arte. Eta etorkizunean berdintsu jarraitzeko indarberritze sasoia heldu zaio.

•1990. urtea garrantzi handikoa da **RONEO**-rentzat, planta guztiz berria zabaldu du Arrasaten, 2.900 $m^2$ koa, azkenengo teknologia berriko makinak, pintura tresna eta CADa instalatu dituelarik.

• Diseinuan ere aldaketa nabari egiten dihardu, produktu berrietan sartzen, aulkietan batez ere, pertsonala hezitzen ari da , eta komerzializazio sarea finkatzen.Sasoi batean teknologia inportatu bazuen ere orain produktuak esportatzen ditu.

**RONEO indarberritu da, Arrasate ere bai.**

AZK TALDEA

**RONEO UCEM**

Bulegoetarako Orotariko Hornidura Ingenieritza



**Leibar**
Juanito
Informazioa



**Lete**
Maria Dolores
Atalataikoan taldeko partaidea



**Lezeta**
Marije
Atalataikoan taldeko partaidea



**Lizaso**
Arantza
Osasuna



**Loidi**
Arantzazu
Kazetaria



**Markuleta**
Gerardo
Zeuk sortua



**Mendiguren**
Iñaki
Erredakzio kontseilua



**Montero**
Patxi *
Denborapasak eta Musika



**Nafarrete**
Paula *
Morokil taldeko partaidea



**Nafarrate**
Sofia *
Morokil taldeko partaidea



**Olabarrieta**
Eukeni
Osasuna



**Ormaetxea**
Txipi
Artxibotik



**Otadui**
Ruth *
Kontabilitatea



**Otaño**
Juanjo
Klarion taldeko partaidea



**Ozaeta**
Arantxa
Artxibotik

**ETXEPARE - BILINTX**
**LIBURUDENDA**
*Liburuak eta diskoak*
Ibargarai 12, Tfnoa: 76 40 50 BERGARA



**Ozaeta**
Jabier
Fotoberri eta Hankamotz



**Plazaola**
Estepan *
Famauen ahotik



**Rodriguez**
Koldo
Telebegi



**Sainz**
Matilde
Klarion taldeko partaidea



**Toledo**
Maite
Horoskopoa



**Uribarren**
Karmelo
Txirrindua eta zuzenketak



**Uribesalgo**
Eguzkiñe
Kontabilitatea



**Urzelai**
Andoni
Telebegi



**Vallés**
Joseba
Argazkilaria



**Velez de Mendizabal**
Josemari
Luma zorrotza



**Viteri**
Josune
Publizitatea eta kontabilitatea



**Zuazubiskar**
Karmele *
Morokil taldeko partaidea



**Zubia**
Bego *
Kazetaria



**Zubizarreta**
Koldo *
Morokil taldeko partaidea



**Eta zu noiz?**

Erdiko kale. 79 19 37
ILEA
Ferrerias. 79 87 62

ELEKTRONIKA ARTIKULUEN SALMENTA
BAZAR TOKI ON
J. Carlos Guerra 1, Tfnoa: 79 91 64



Umetxoak ikastolan ibiltzen diren bezala, guztiak baloiaren atzetik korrika; Zaldibarko frontoian ordena batekin jokatzeko modurik ez balego bezala. Bazen talde bat Eskiñako Ontzak izenekoa, ez dira argazkikoak, baina ezin ukatu izkinan daudenik.


OPEL
Hobeak esperientziaz

TALLERES OLA, S.A.
Erakusketa Arrasaten:
Loramendi 2, Tfnoa: 79 05 86

Lorategi
Kafetegia

Iturriotz 7, Tfnoa: 79 04 67


## EMAITZAK

**A taldea**

| | |
|---|---|
| Argi Ibili 4 | Bar Artano 4 |
| Potrozorri 1 | Artzankos 12 |
| ~~Autovia patutia~~ 0 | Kriskibalda 1 |
| Camerun's 1 | Zortzikin nahiko 0 |

**B taldea**

| | |
|---|---|
| Bizkorrak 4 | Alperrak Aldatz 1 |
| Lorategi potroak 2 | Sokoa 600 8 |
| Golfos Persicos 2 | Adelaida 6 |
| Fosforos 3 | Arrasate Kirolak 4 |

**C taldea**

| | |
|---|---|
| Zuloak 1 | Bar Kajoi 2 |
| New Laso Arregi 1 | Sum. INd. Ugarte 15 |
| Rayo Vatika-no 0 | Pepelus 7 |
| Los Heredia 5 | Diego Antonio 1 |

## ATEZAINAK

*Jesus Moreno Saria*

**Javier Murguzur.**
**11 gol.**

Suministros Industriales Ugarte taldeko atezaina izan da sariketa honen irabazlea. Berari eta bere taldeari, zorionak!


GATZAGA
*Jatetxea*

EGUNEROKO MENUA ETA KARTA

*Olarte kantoia 3,*
*Tfnoa: 79 84 53*
*ARRASATE*



**Zenbaki saritua: 45.342**

## Ebaki eta gorde txartel hau!

Trikitik eta Kajoi tabernak Walkman bat zozkatuko dute astero. Astero aterako da zenbaki bat, eta saria jasotzkeo epea 6 egunekoa izango da.

Sariturik agertu ezean, hurrengo asterako gordeko da saria, eta antzeko sariren batekin trukatu ahal izango da Trikitin.

52717

KAJOI
TABERNA

# Txutak

### Kanporaketak hastear

Zaldibarko futbito txapelketako bigarren fasea bukatu da. Sailkatu direnak, ondorengoak: *Argi Ibili, Artzankos, Cameruns, Adelaida, Arrasate Kirolak, Suministros Industriales Ugarte, Bar Kajoi*, eta *Zuloak*.

*Bar Artano*k sailkapena lortzeko zail izango zuela genion, horretarako *Argi Ibili* gainditu beharra zeukan eta. Espero zen bezala, *Artano*koek ez zuten garaipenik lortu, baina ezta galdu ere, eta hori txalotzekoa da, *Argi Ibili*rekin galtzen ez duen lehen taldea bait da.

Agurra esan duten beste bi, *Fosforos* eta *Golfos Persicos* . Azken unera arte, sailkatzeko borrokan ibili dira, baina sailkapeneko lehenengokoen arteko neurketak jokatu ziren, eta galdu zutenez, kanpoan gelditu dira.

*Suministros Industriales Ugarte, Bar Kajoi* eta *Zuloak*ek ere sailkapena lortu zuten. Lehenarena segurua zen, eta beste biena ikusteko zegoen. *Kajoi*k irabazi zuen partidua, baina *Zuloak* ere sailkatu da.

Datorren astetik aurrera jokatzen diren partidu guztiak finalak izango dira, galtzaileak kanpora joango dira eta. Beraz, ezin hutsik egin.

# Datorren Asteburuan

Apirilaren 20an emango zaio bukaera Zaldibarko futbito txapelketari. Beraz, ez da denbora gehiegi gelditzen. Orain artean, partidu guztiak liga gisa jokatu dira eta hemendik aurrera kanporaketa eran jokatuko dira. Hau da, partidua galtzen duen taldea txapelketatik kanpo gelditukoda. Ondorioz, argi dago taldeek ezin dutela hutsik egin eta konzentrazio osoz jokatu beharra daukatela, bestela, edozein hanka sartze eginaz gero, ezin izango dute txapelketako finala jokatu. Normala denez, orain arte meritu gehien egin dituenak, nolabait abantaila izan dezan lehen postuetan sailkatu direnek hirugarren postuetan sailkatu direnekin jokatu behar dute, eta alderantziz.

**Kanporaketak**

Zuloak .................................... Argi Ibili
Artzankos .................................... Sum. INd. Ugarte
Adelaida .................................... Cameruns
Arrasate Kirolak .................................... Bar Kajoi

# Golegileak

## *Mikel Otxoa Saria*



Elizaran

Jose Martin Elizaran (*Argi Ibili*).

*Argi Ibili* taldea txapelketa guztian zehar gol gehien egin dituen taldea izan da. Beraz, ez da arraroa goleatzaileen sailkapeneko buru bertako jokalaria izatea. Taldeari eskertu beharko dizkio lortutako golak.

BASTIDA

• Mekanografia
• Takigrafia
• Informatika
• Kontabilitatea
• Klase partikularrak

Ferrerias 44, etxebehea, Tfnoak: 79 32 16 / 79 77 13
ARRASATE

ELU
URONDO ELEKTRIZITATEA
Nafarroako Etorbidea 11,
Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

JMA JMA

# Jose Luis Agote

# Asteasuarra ordenadorez maketagile

**Itzultzaile eta maketatzaile asteasuarra, lehen Arrasate Pressak berak egin zituen .Bi urte t'erdi beranduago bere eritziak eman dizkigu**



**— Nola gogoratzen dituzu Arrasate Presseko hasierak?**

— Presakako eta kaotiko samarrak. Ni erakustera joan nintzen, eta kazetariak eta ideiaren sortzaileak nahiko presaka zebiltzan zero zenbakia ahalik eta azkarren ateratzeko. Lanpetuta nebilenez, bezperan joan eta gaupasak egiten nituen, hiru edo lau 36 ordu segidan. Nik oroimen ona daukat, oso ondo hartu nindutelako eta oso ondo konpondu nintzelako horko jendearekin. Ekipoak jarri zizkien banatzaileak nahiko salduta utzi zituen, programa amerikarrekin, ez programarik, ez sarerik tajuz antolatuta ... Hori dena hasierako kazetariek pagatu zuten,

**— Zer moduzko maila ikusten diozu gaur egun?**

— Gutxi irakurtzen dut, lokala delako eta egunkari kutsu handitxoa ikusten diot. Astero ateratzekotan, egunkari itxurakoa izan behar du, non eta oso kolaboratzaile onak ez dauden tartean. Ni ez naiz egunkari zalea, eta gainbegiratua eman ondoren, nere intereseko artikulurik ikusten ez badut, ez dut irakurtzen. Bestela, nahiko lan egiten duzuela, orri asko bete bai behintzat, eta tirada handia daukala. Udal aldizkaria izateko oso ondo dago.

**— Eta maketa aldetik?**

— Maketa aldetik, piska bat ikusten dut haserakoaren jarraipena dela. Nik uste dut ondo dagoela. Gogoratzen dut hasieran oso letra handiak egiten zituztela, eta eredu batzuk asmatu genituen jarraituaz, hori dena jorratu eta hobetu egin da, eta diseinurako programekin askoz ere landuagoa dago orain. Dena den, nik uste dut ehun ale bete dituenez, ondo etorriko litzatekeela eraberritze bat. Zaila izaten da ideia berriak gauetik goizera, eta orrialde kopurua ere dexente gehitu denez. Gero bada beste arrisku bat, beste aldizkari batzuk egitean kopiak egitearena eta. Maketazio aldetik Macintosh-aren posibilidadeak mugagabeak dira. Kasu horietan sinpleena kanpoko edozein aldizkari hartu eta sasi plagiatzea egitea da. Orduan erraza da formatoz eta aldatzea. Erdikaldean sartu dituzuen orri horixka horiek, egutegia eta, oso ideia majoa iruditzen zaizkit.

**— Zure lana liburuen diseinua eta maketazioa da, neurri handi batean. Erakargarri ikusten al dituzu, orokorrean euskal liburuak?**

— Orain arte nahiko kaxkarra izan da, baina horren esplikazioa nahiko erraza da: lehengo sistemetan flexibilitate gutxi zuten, eta beste aldetik, gaur, ordenadorean dena zerorrek egiten baduzu, frogak ikusi egiten dira. Hemengo arazoa tirada txikiak izatea da, eta horregatik ez da aukerarik izan formatoekin jolas egiteko. Gaur egun askoz errazagoa da garestitu gabe frogak egitea, pantailan bertan, eta aurreratu da, baina editoreak ez dira gehiegi mugitu bide horretatik. Hala ere, asko hobetu dira liburuak eta denborarekin asko hobetuko dira. Orain apustua kolorea da.

**— Autoedizioan, nolako maila ikusten duzu Euskal Herrian?**

— Oraingoz kaxkarra. Mundu hau nahiko itxia da eta ona izateko informatika dexente jakin behar da eta trebetasun handia izan. Inprentan ibili den jendea lehengo tekniketan dago sartua eta horiek ordenadore baten lanean hasaraztea zaila da. Idazle eta kolaboratzaile askok, gainera, ordenadorea idazmakina bezala erabiltzen dute, ezagutu gabe. Gero liburua egin behar duenak akats guztiak zuzentzen ibili behar du.

**— Herri kazetaritzara itzuliz, zer etorkizun ikusten diozu?**

— Etorkizun ona, hasteko produktua kobratu gabe ateratzea lortzen dutelako. Orain gauza bat doan ateratzen bada, hemendik bi urtera errazago aterako da, eta beste aldetik, luzera hemen sarea osatzera jo behar da. Garbi dago gero eta gehiago ari direla zabaltzen sare informatikoak eta kolaborazio sistemak, free-lancing deitzen zaiona, autoenplegua alegia, eta asko zabalduko da norberak bere etxean lan egin eta lana telefonoz edo modemez bidaltzeko joera. Multimediarengatik apustu egin beharra dago. Gauza asko egiteko dira, beste gai batzuetan bezala.

> **“100 zenbaki eginda, beharbada itxuraldaketa behar du A. Pressek**

## Fagor Taldea ondo baino hobeto

Fagor taldeko txirrindulariek hasiera bikaina eman zioten gazte mailako denboraldiari. Lasterketa Azpeitian burutu zen, eta 231 txirrindulariren artean Ruben Ramos Fagorrekoak lehen postua lortu zuen. Iñigo Roldan atxabaltarra, argazkian dagoena, hirugarrena izan zen helmugan.






## Eskubaloikoak hobetzen

Espero zen bezala, Arrasate Kirolak eskubaloi taldeko jokalariek, Salesianos taldearen aurkako partiduan garaipena lortu zuten; erraztasunez gainera, emaitza 20 eta 29koa izan bait zen arrasatearren alde. Garaipen horri esker, arrasatearrek sailkapenean bi puntu gehiago dauzkate eta jaisteko arriskutik ihes egiteko moduan direla esan daiteke. Hurrengo ihardunaldietan ezingo dute hutsik egin, berriro behera joan daitezkeelako. Datorren astean Ormaiztegi taldea izango da Musakolan, arrasatearren bolada ona moztekotan. Ikusleen laguntzaz, eta jokalarien joku normalaz bi puntuak Arrasaten gelditu beharko lirateke.

## Euskadiko V. Xake Txapelketa

Joan den astean, Monterron Kultur Etxeko aretoan Euskadiko V. Xake Txapelketaren aurkezpena egin zen. Beste xehetasun batzuen artean, apirilaren 1etik 7ra burutuko den Euskadiko Txapelketan zeintzuk hartuko duten parte iragarri zen. Honako hauek dira:

- Juan Mario Gomez.
- Francisco Gallego.
- Francisco Javier Ochoa de Echaguen.
- Felix Izeta.
- Rafel Alvarez.
- Jesus Iruzubieta.
- Carlos Cruz Lopez.
- Patric Echegarai.
- Pedro Pastor.
- Jesus M. Calvo.
- Juan Carlos Lakunza.
- Ricardo Bastida.
- Roberto Pinilla.
- Jose M. Mtz. Otzeta.
- Francisco Sesma.
- Luis Olaizola.
- Asier Rufino.
- Luis Javier Arias.
- Mario Basto.
- Juan Carlos Fernandez.
- Ruben Iglesias.
- Cesar Rodriguez.
- Aitor Arnal.
- Fernando Fdez. de Aranguiz.
- Unai Garbisu.
- Jose M. Celaya.
- Jose Javier Vallina.

Kabia altzariak

Gipuzkoako Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

BRANKA
jatetxea
Eguneko menua eta karta

# PODIUMA

## JOSE PABLO URTUBI

## Zuri eta beltzen jokoan



Jose Pablo Urtubiri xakean jokatzen, zortzi urte zituela, bere aitak erakutsi zion, honi Eskoriatzan irakasle zegoen batek erakutsi ziolarik. San Andresen txapelketa bat egin zen arte, etxean bakarrik jokatzen zuen. *"1968. ean San Andresen xake txapelketa antolatu zuten, eta nik parte hartu. Txapelketa hura bukatu zenean, bertan parte hartu genuenok serioski hartu eta, egin beharrekoak egin ondoren, San Andres Xake Taldea sortu genuen. Orduan Gipuzkoako hirugarren mailan geunden, eta gaur egun preferente mailara igota gaude. Gure lehen asmoa Euskadi mailara igotzea da, eta gero Estatu mailara".*

Hirurogeiren bat jokalarik osatzen dute San Andres taldea, baina askoz gehiago izan dira 68tik hona bertatik pasatu direnak. Berari erakutsi zioten bezala, Urtubik, jende askori erakutsi dizkio xake jokoaren oinarri eta sekretotxoak. *"Hasieran jendeak beldurra izaten dio xakeari, galduaz gero gainerakoan tontotzat edukiko dutela pentsatuz, eta kontua ez da hori. Xakea, logika eta konzentrazio jokua da, besterik ez. Umeentzat oso lagungarri izan daiteke, baina denbora asko kentzen duenez eta gainera bizioa denez, askotan ez diegu jokatzerik lagatzen, bestela ikasketei ez diete eta kasurik egiten".*

Xakea kiroltzat dauka Urtubik, kirol gogortzat gainera. Berak dioenez, forma fisiko onean egon ezean, zaila ei da konzentrazioari ordu luzetan eustea. Arrasatekoa maila oneko xake taldea dela dio Urtubik. *"Xakearen arazo larriena ikusgarriegia ez izatea da. Telebistan, bost ordu iraun dezaken jokaldia eskaintzea ezinezkoa da, beste modu batera egin beharko litzateke. Agian horregatik, ez da jende berri gehiegi hurbiltzen Arrasateko xake taldera, xakeak ez duelako ospe handiegirik".* Hala ere, San Andres taldekoak Euskadiko Txapelketa antolatzera ausartu dira. *"Guretzat garrantzi handia dauka. Jendea, Euskadiko jokalari hoberenak bilduko ditugula konturatu behar da, eta horregatik jokaldiak ikustea merezi duela uste dugu".*

**◆Txirrindularien aurkezpena**

Dorletako Ama Txirrindulari Eskolakoek denboraldiari hasiera eman badiote ere, oraindik, taldeen aurkezpena egitear daukate. Hutsune hori betetzeko, Eskolako partaide guztiak bihar goizean Dorletako Santutegian bilduko dira. Hamar t'erdietan elizkizuna burutuko da, eta gero Santutegi aurrean Eskolako taldeen aurkezpena egingo da. Eguerdiko hamabiak inguruan Gatzagako Kultur Etxean gonbidatutako guztiei luntxa eskainiko zaie.

**◆Centraljetek berriz galdu**

Txus Brizuelaren mutilek hiru partidu jokatu dituzte igoerako fasean, eta hirurak galdu, oso diferentzia txikiagatik izan bada ere. Badirudi Arrasateko taldeak ez diola behar bezala heldu igoera fase honi, eta joan den larunbatean ere ustekabean galdu zuen Barañain taldearen aurka, 97-101 emaitzaz. Datorren astean Xerox Getxo taldearen aurka jokatuko dute, arrasatearren lehen garaipena eskuratzeko aukera.

**◆San Andres galtzaile**

Azken partiduetan San Andres futbol taldeak garaipenaren bidea aurkitu zuen, baina joan den asteburuan Atletico Alaves Atxabalpera etorri eta bi puntuak eraman zituen, 1 eta 2ko emaitzaz nagusitu ondoren. Partidu horrek erraza zirudien, baina San Andresekoek ezin izan zuten irabazi. San Andresekoen hurrengo irteera Ariznabarra taldearen aurka jokatzeko izango da.

**◆Mondrak ezin**

Gernikatik esku hutsik etorri ziren Mondra taldekoak, 2 eta 1 galdu bait zuten. Mondragoetarrak irabazten hasi ziren, Ikerrek 37. minutuan lortutako golari esker, baina gero ez ziren gauza izan zeukaten abantailari eusteko.

EGUZKIGRAF
KOOP E S COOP
Grafikagintza. Tipografia. Offset industriala
• Liburuak
• Aldizkariak
• Katalogoak
• Liburuskak
• Merkatal inprimakiak
• Bulegoko materiala

# Elikadura eta kirola (II)

Elikadura modan dagoela argi eta garbi ikusten da, denok arduratzen bait gara gai honetaz, batez ere kirolarien artean, askotan obsesio-itxura hartzen duelarik. Denak mirarizko dietaren bila dabiltza honek txapeldun egingo dituen itxaropenarekin...Horrela hainbat janari "mito" sortu dira aspaldi honetan eta kirolarientzako osagarri edo suplementoak egiten dituen industria gero eta indar handiagoa ari da hartzen. Gure gizarte honetan "Kontsumoak" dena ukitzen du, eta kirolarien elikaduraren mundua, ez da salbuespen bat noski.

Elikadurak ez du txapeldunik egiten, baina behin eta berriro frogatua dago elikadura egokia derrigorrezkoa dela "forma fisiko" onari heusteko. Baina elikadura egokia gauza bat da eta bestea justifikaziorik gabe beharrezkoak ez diren hainbat produktu hartzea, batez ere inolako abal zientifikorik ez dutenak.

Kirolari askok elektrolitoak daramatzaten prestakuntzak hartzen dituzte, izerdiarekin galdutakoak errekuperatzeko. Baina laranja baten ura edatea nahikoa izaten da galdutako elektrolitoak (sodioa, potasioa, kloroa...) berriro lortzeko, gauza erreza benetan. Are gehiago, nahasketa horiek kaltegarriak bilaka daitezke batzuetan, diluzioa behar bezala egina ez badago, hau da, kontzentratzio handiagoa badago. Fruituak eta ur ugari nahikoa da, merkeago eta naturalago ere bai.

Kulturismoa egiten dutenen artean, berriz, ramifikatutako aminoazidoak hartzea da modan dagoena, teorian masa muskularraren garapena lortzen laguntzen dutela diote, baina ez dago azterketa zientifiko bat bakarrak ere horrela erakusten duenik. Alderantziz ordea; ikusi da aminoazido batzuetatik gehiegi hartzea kaltegarria izan daitekeela, patologia garrantzitsuak sortu ditzaketelako. Hala eta guztiz ere, asko dira diru-kopuru handia era honetako produktuetan gastatzen dutenak.

Antzerako zeozer gertatzen da beste produktu batzuekin; hauek janariak eta elikagaiak ez badira ere, kirolarien dietan maiz agertzen dira: Ging-seng estraktoa, Koreako landarea, dugu hauetariko bat, ahalmena, indarra, kemena eta gaitasuna ematen duela diote, baina erakutsitako efektu bakarrak: euforia, agresibitatea, suminkortasuna, insomnioa... dira; eta guzti honen ondorioa berriz burmuinetako azalaren estimulazioa eta nekearen alarma desagertzea. Horrela kirolaria ahal duen esfortzua baino gehiago egitera bultzatua gertatzen da, gero lesioak eta neke handia sortzen direlarik.

Karnitina dugu mito horietako beste bat: "bukatzen ez den indarraren iturria", nahiz eta kirolariengan hobekuntza nabaririk inoiz ez den frogatu; hauek nabaritzen duten hobekuntza plazebo efektua dela diote, hau da, efektu psikologikoa besterik ez.

*Eukeni-Arantxa*

**ASTE SANTUKO ESKAINTZA**

**Beti bezala, zure argazkiak**
*LASO-ARREGIn*
**ERREBELATZEAGATIK %20KO DESKONTUA egingo dizugu edo karretea oparitan eman. Orain, gainera, 35-70 objetibodun eta flash CANON EOS argazkimakina baten ZOZKETAN parte har dezakezu.**

*LASO-ARREGI*
**San Juan**
**79 12 75**
**ARRASATE**



# *Batuta*

## Izabella Blezien



Izabella Blezienek bost urte daramatza Arrasate Musikalen piano irakasle lanetan, hona etorri zenean horrelakorik pentsatzen ez bazuen ere. *"Nire hasierako ideia, urte batzuk hemen egotea zen eta gero berriro Poloniara itzultzea, baina bizitzak horrelakoak egiten ditu eta azkenean ezkondu eta hementxe gelditu naiz. Hasieran oso gogorra egin zitzaidan hemengo bizimodura egokitzea, Poloniakoarekin konparatuz gero, guztiz desberdina delako. Lana bukatu eta gero, adibidez, nire sorterrian ez dago kalean gelditzeko ohiturarik, bakoitza bere etxera joaten da eta kitto"*.

Berak esan duen bezala, poloniarra dugu Izabella Blazien, eta gainera txiki-txikitandik musika giroan sartutakoa. Bost urte zituen piano ikasketei ekin zienean, eta zazpi urterekin lehen grabaketak egin zituen. *"Etxean musika-giroa aurkitu nuen umetatik. Gure aita musikaria zen eta gure amak ere ahots ona zuen. Ni bezala, anaia ere musikaria da, eta ni baino lehenago etorri zen Arrasatera, nolabait niri ateak zabalduz"*.

Arrasaten musika-giro ona aurkitu duela dio Izabella Blezienek, baina hala ere, oso zail ikusten du punta-puntako musikaririk ateratzea. *"Musiko on bat ateratzeko, lana oso gogor egin behar da, eta hemen gauzak ez dira horrela planteatzen. Europako herrialdeetan musika ikasketek beste ikasketen balioa daukate, hemen, aldiz, ez. Lehenik injineru edo mediku izatea eskatzen zaie haurrei, musika zaletasun moduan hartzeko gomendatuz. Horrela zaila da musiko onak ateratzea, musikari behar beste ordu ez zaizkiolako eskaintzen"*.

Agur esan aurretik, Izabella Blezienek Arrasaten pozik bizi dela aitortzen du, baina batzuetan herriminaren eraginez Wroclaw-eko hirian nahi lukeela egon, *"oporretako bisitaldiarekin konformatu behar"*.

**Musikari onak ateratzea zaila da, zaletasun gisa hartzen delako**

## Txio txioak

**Gorosarri Avilesen**

Eskoriatzako Gorosarri abesbatzak arrakasta handiz burutu du Asturiasko Aviles herrian eman duen kontzertu sorta. San Josetako zubia aprobetxatuz erantzun zioten hango Sociedad Coral Avilesinak luzatutako gonbiteari. Igande eguerdian eta astelehen gauean eskaini zituzten kontzertu bana, bi zatiz osatuak biak ere: folklorean zortzi kanta, zortzi euskaraz eta bat bertakoa, eta polifoniakoa bigarrena. Pozik etorri ziren eskoitzarrak, eskainitakoaren mailarekin, eta baita asturiarren aldetik izandako harrerarengatik ere.

**Goikobaluk izena aldatu**

Sortu zenean hartutako izena, Goikobalu, aldatzea erabaki du abesbatza arrasatearrak. Santa Barbarako obaluaren izena hartu zuten hasieran, herriaren gehiengoak ezagutzen dituen toponimoak erabiltzeko dagoen joera dela eta. Hala ere, abesbatzak herriaren izena izatea garrantzitsua dela ikusirik, *Arrasateko Abesbatza* deituko diote aurrerantzean. Galeseko bidaiarako ere izen handiagoa zalantzarik gabe.

Goikobalu
ABESBATZA

Izenarekin batera anagrama ere aldatu beharko dute


"EDERTU"
ileapaindegia



San Andres auzoa 79 04 28

FANCY
GAZTEEN MODA! Bizkaia Etorbidea 1, Etxabea. Tfnoa: 77 14 24

# Hutsetik ehunerako bidean

**Arrasate Pressen lehen aleari begiratzen badiozue zenbateraino aldatu den konturatuko zarete. Aldaketa hori ez da, ordea gauetik goizera eman, astetik astera baino, oharkabean ia.**

Arrasate Pressen aleak etxean gordetzen dituzuenak hutsetik ehunera egindako bidean barrena bidaia egitera gonbidatzen zaituztegu.

Itsusia irudi dakioke bati baino gehiagori 1988ko abendu hartan plazaratu zen lehen zenbaki hura. Hala eta guztiz, ondo begiratuz gero, Arrasate Pressen oraingo hezurdura hantxe dago: herriko albisteak, erreportaia, elkarrizketa, inkesta, kirolak eta hainbat kolaborazio.

Hurrengo zazpi aleetan esperimentazio ugari egin zen aldizkarian, beti ere eman nahi zitzaion herri aldizkariaren nortasunaren bila: sailen izenak maiz aldatu ziren: *Asteko taupadak Orain eta hemen* bihurtu zen, *Literatur orria Zeuk sortua*, baina edukiek ere izan zuten aldaketarik: hasierako *Zaharrak berri Zelebrekerixak* bilakatu zen sailaren mamia ere aldatuz; gauza bera *ETBren programazioa*rekin. Denboraz, zeharo desberdina zen *Ikus eta entzun* bihurtu zen. Lehen zenbakiko *Zorionak Izen propio*etan gauzatu zen behin betiko, ikuspegi aldaketa txiki batekin. Zazpigarren alerako aldizkaria nahiko itxura hartuta zegoen.

### Eremuak zehazten

Hortik aurrera aldaketak askoz ere polikiago gertatu dira. Sail handiak mugatuta zeuden, baina orduan bakoitzaren eremuak zehazteko egin zen lana. Horrela, 9. zenbakian *Txandaka* eta *Podiuma* orriratu ziren, lehena herrian edo herritik kanpo egon daitezkeen eritzi desberdinei lekua egiteko eta bigarrena Mondragoeko kirolariak plazaratu asmoz. Beranduxeago, 14. zenbakian, geroago klasikoa bihurtu den saila agertu zen: *Fotozahar*, herriaren historia argazki bidez berreskuratzeko ahalegina.

Aurrerago, *Orain eta hemen* osatu nahian, zuzendariaren eritzia plazaratuz batetik eta asteko informazioaren ikuspegi zabalagoa emateko herriko kroniken izenburúrik inportanteenak aipatuz, *Usteak uste* eta *Prentsaren begia* jaio ziren 26. zenbakian.

1990eko urtarriletik aurrera, Arrasate Press ATBren jaiotzaren lekuko bihurtu zen, *ATB orria*ren bidez. Garai beretsuan *Aste gazte* hasi zen azaltzen orri hauetan, gazteei zerbitzu hobea eskaintzeko.

Aurrerantzean agertuko diren aldaketa gehienetan zerbitzu hobeak eman nahiak bultzatuta agertuko dira joan den irailetik honako berrikuntzarik gehienak: *Asteko agenda*ren bigarren orria, *Auzo herriak* eta *Hileko agenda* hortik sortu dira. *Txiki txoko* eta *Musika*ren bigarren orrialdeekin kole-















ktibo berriei eman nahi izan zaie ahotsa: ume eta betiko musikazaleei. Gainerako komunikabide idatzietan bezala, herri telebistak geroz eta espazio handiagoa hartu du Arrasate Pressen.

Bi urte luze hauetan izan dira behin behineko sailak ere, horietatik inportanteena, duda barik *Zaldibarko Futbito Txapelketa*ri eskaini izana. Apirilean txapelketa amaitzearekin batera desagertuko da orri hauetatik, datorren denboraldira arte.


euskara ederrean

Zelebrekerixak

Elhuyar tabloiaren kolaborazioa

DESAGERKETA HANDIAK

Mondrako les asto hauetan

Jesus Elkoro Elektroteknika


berbaroa

Famauen ahotik

Agur esatera gatoz

Zelebrekerixak

Felipe Arrizabalaga atontegia

S. Migel Jatetxea


Aldaketa guztietan maketazioa ezinbestekoa da

Hauteskunde kanpaina desberdinei ere eskaini zaie lekutxoa, Europarakoetan *Euroizarrak* eta Autonomikoetan *Botu Saltsa* sortuz. Bietan kanpainari buruzko berri laburrak ematen ziren. Azken Bertsolari Txapelketan *Bertsolaritza* kolaborazioa izan zen.

## Desagertutako sailak

Ehun zenbakiek egin duten bidean argi dago aldizkariaren oraingo 44 orrialdeek ez direla nahikoa aipatu diren sail guztiei lekua egiteko. Bidean desagertu egin dira sail mordoska. Ia gogoratzen dituzuen: *Zorionak*, *Udalaren txokoa*, *Elhuyar*, *Zaharrak berri*, *Asteko Taupadak*, *Artea*, *Sukaldaritza*, *Denborapasak*, *Ez dakizula*, *Automoto*, *Ikus eta entzun*, *Teknoberri*, *Famauen ahotik* eta *Zelebrekerixak*. Hauetako batzuk arrakasta handia izan zuten, baina kolaborazioak izanda, egileak beste zereginetan sartu diren neurrian, desagertuz joan dira gure orrialdeetan. Horrekin lotuta, eta . alboko orrialdeetan ikusiko duzuenez, baja izan dira mordoska, baina zorionez, berriak ere etorri datoz. Datu hau bat dator herri aldizkari baten izaerarekin: zaletasuna eta aukeren arabera, herritarrek parte hartzen dute denboraldi mugatuetan. Gure kasuan esan beharra dago, hala ere, azken sei hilabeteetan egin diren aldaketen ondorioz, poliki-poliki kazetariak joan direla sail berrien ardura beren gain hartzen.

**Lehen zenbakia itsusia iruditu arren, aldizkariaren hezurdura han dago**

## Gehigarriak

Gehigarri dexente atera ditu Arrasate Pressek: Haratuzteetan, San Juanetan, Aurrekontuak direla eta, Komikiak, 54ko Korrida famosue… eta euskal literaturari arreta berezia eman nahian edo, gure herriko idazleek liburu berriak argitaratu dituzten bakoitzean.

Ahalegin estra bezala, urtekaria aipa daiteke hemen, eta Hauteskundeen ostean atera ziren egunkari itxurako ale bereziak. Arrasate Press konformatzen ez delako euskaraz idazten den aldizkari soila izaten, baizik eta bere irakurlegoak momentu oro behar duen informazioa ematen saiatzen delako.

Mondragonesa Grafikagintza

Paperdenda. Mahaigaineko tresnak

Olarte 10, Tfnoa: 79 12 63

ALTUNA

Lurrindegia
bisutegia
drogeria

Maalako Errabala
Tfnoa: 79 14 23

# Mendiko bizikletako 1991ko egutegia

BTT aldizkariak, bere bigarren alean (11. orrialdean) Gipuzkoako Egutegiari buruzko aipamen txiki bat egin du eta gainera, hemen inguruan izango diren proben berri eman. Laster izango diren probak honako hauek izango dira.

**Karrerak**

- Apirilaren 21ean, Oiartzunen (Espainiako Irekia).
- Maiatzaren 5ean, Legorretan.
- Ekainaren 2an, Azkoitian.
- Ekain. 30ean, Zumarragan.

**Trabesiak**

- Apirilaren 7an, Hondarribian.
- Maiatzaren 26an, Tolosan.
- Ekainaren 2an, Azkoitian.
- Ekainaren 9an, Irunen.
- Ekainaren 16an, Eibarren.
- Ekainaren 30ean, Zumarragan.
- Uztailaren 14ean, Oreretan.
- Irailaren 22an, Andoainen.
- Irailaren 29an, Lezon.
- Urriaren 6an, Hernanin.
- Urriaren 12an, Tolosan.

Informazio gehiago Gipuzkoako Federazioan izango duzue. Telefonoa: 943-46 05 40.

Nafarroan, Iruñeko ASDE, (Kirolaren Aholkulariak), Iruñean kirol-ekintzak antolatzen dihardduen enpresak, BTT edo mendiko bizikletari buruzko sail berria sortu du. Iruñeko Kirol-Batzordearekin elkarlanean Nafarroan zehar egiteko hainbat irteera antolatu du. Adibidez, martxorako eta apirilerako honako hauek antolatu dituzte:

91-03-31n, Andia mendilerrora; 91-04-14ean Izaga Haitzera; eta 91-04-28an Iratira.

Informazio gehiagorako deitu telefono honetara: ASDE (948) 17 59 62. Eta bukatzeko BTT aldizkariari buruz zenbait ohar: bi hilabeterik behin ateratzen dute. Prezioa: 500 pta.

Beste baterako utziko ditugu gainontzeko xehetasunak. Baina onena, lortu eta nola dagoen ikustea duzu.

Hurrengo batean bertan agertzen diren aholku interesgarri batzuen berri emango dizuegu. Eta besterik...

*K.U.*



Arrasatear bizikletariak Besaideko iturri ondoan


la merced
IKASTETXEA

**HEZIKETA IKASTETXEA**
- Kontzertua
- Mistoa
- Eskolaurrea (3 urtetatik)
- O.H.O.

**IRAKASTEREDUAK**
- "B" Elebiduna
- "D" Euskera

**ZERBITZUAK**
- Psikopedagogi orientazioa
- Hezkuntza bereziko ikasgela
- Psikomotrizitatea
- Informatika tailerra
- Ikusentzunezko gela
- Liburutegia
- Jangela
- Laborategiak

**BESTE EKINTZA BATZUK**
- Multikirola
- Xakejokua, Keramika, dantza
- Korua
- Barnetegiak
- Antzerkia
- Bisitak erakunde ezberdinetara
- Elkarrizketa-Hitzaldiak

- Esperientzia 99 urtez, izpiritu, lan talde eta gure helbururik garrantzitsuenarekin bat egiten duen pedagogia: KALITATEA
Hezkuntza osagarria eskaintzen dugu: pertsonala, soziala eta erlijiosoa.

Informazio gehiago nahi baduzue etor zaitezte:
**"La Merced" Ikastetxea**
**J. L. Iñarra kalea, 34**
**Tfnoak: 79 27 73 eta 79 20 92**
**ARRASATE**
**Matrikulazio epea zabalik dago**

# HIRU S. A.
# MEKANIZAZIOAK

- *Doitasunezko mekanizazio plano eta langileen arabera*
- *Fresatzeko makinak*
- *Zenbakizko kontrola*
- *Mekanizazio-zentroak*
- *Tornuak*
- *Artezko makinak, etab.*

Zaldispe kalea 10, ARRASATE
Tfnoak: 79 67 80 / 79 05 61
Posta kutxa 95. Telefax: 79 80 97

Goiain Industrial Poligonoa. 24 Apartatua
Tfnoa: 945; 45 54 28 / 45 54 54 / 45 54 53
Telefax: 45 54 74, 01170 LEGUTIO



TXANPA

SARI BIKAINAK!

ARRASATE PRESS

# IRRISTOLA TXAPELKETA

- **Goi mailako irristolarien exhibizioa**
- **Lehiaketa bi mailatan:** **12 urtera artekoentzat**
  **12 urtetik gorakoentzat**

**Zaldibarren, martxoaren 24ean, arratsaldeko 4etan**



## *Aste gazte*

Gazteek beren buruaz duten irudiari buruz, estereotipo batzuk zabalik daude:

- mutilak: ausartak, arriskuzaleak, independentistak, askatasun eta adiskidetasun aldekoak eta joera konformisten aurrean kontrako jarrera.

- neskak: itxura fisikoari garrantzi handia ematen diote, gauza berrien aurrean zabaltasuna eta kontrako jarrera joera konformisten aurrean.

*Zazzo*

### Udalekuak

• Diputazioek eta Ikastolen Elkarteak antolatutako Udalekuak. Txandak: uztailan (1. eta 2. hamabostaldian) eta abuztuan (1. hamabostaldian). Adina: 8-14 urte bitartekoei zuzenduak. bi modalitate: euskaraz eta elebidunez. Izenemateak: ikastolan (bertan ikasten ari direnentzat) eta Gazteentzako Informazio bulegoan (beste ikastetxeetako gazteentzat). Epea zabalik dago. Inskripzio-kuota: 14.000 pta.

### Kanpamenduak

• Diputazioek eta Ikastolen Elkarteak antolaturik. Non: Atxondo-Izurtzan, Orion eta Legutianon. Ekintzak: eskalada, ibilaldiak, mendiko bizikletak, senderismoa, piraguak, banko hígikorra, pottokak, kanoak... Nori zuzenduak: 1975 eta 76 bitartean jaiotakoei (16-17 urte). Izena emateko epea zabalik dago. Ikastolan ikasten ari direnek ikastolan bertan eman dezakete izena. Beste guztiek, Gazteentzako Informazio Bulegoan. Inskripzio-kuota: 16.000 pta.

### Bekak, laguntzak, bidai sariak

• Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailak honako gai hauetarako laguntza-deialdia egin du:

Musika, antzerkia, dantza eta balleta, zinea eta argazkilaritza, arte plastikoak, liburutegi, artxibategi eta museoak, arkeologia, ondare historiko-artistikoari ~~buruzko ikerlanak, liburuari~~ buruzko ikerlanak, gazteria eta gizarte ekintza, turismo eta kirolak.

• Musika, dantza, arte lirikoa eta antzerkiari buruzko ikasketak atzerrian sakontzeko eta hobetzeko bekak 1991. Eskatzaileak: beraien espezialitate artistikoari buruzko ikasketen titulu eta ziurtagiriak dituzten ikasleak, edota musika eta arte liriko arloetan esperientzia eta gaiyasun nahikoa erakusten dutenak. Tokia: atzerriko edozein lurraldetan. Dirulaguntza: gehienez, 1.000.000 pta. Epea: apirilak 5.

### Lehiaketak

• Urretxu-Zumarragako VI. Antzerki astea iragartzeko kartel lehiaketa. Teknika librea. Sari bakarra: 40.000 pta. Lanak aukezteko epea: Apirilak 6.

• "Ciutat de la Bisbal" II. Zeramika-lehiaketa. 35 urtetik beherako gazteei zuzendua. Epea: apirilak 2-maiatzak 15.

• "Portugaleteko Gaztediaren Etxea" II. Ipuin-lehiaketa. 14 eta 30 urte bitartekoei zuzendua. 2 sail: euskaraz eta gazteleraz. Gai librea. Lanek 6 eta 12 orri bitartekoak izan behar dute. Sariak: Sail bakoitzeko hiru sari: 1.) 30.000, 2.) 20.000, 3.) 10.000. Epea: maiatzak 24.

*Informazio gehiago:*
*Gazte Zerbitzua, 77 00 65*

**"PAL"**
**burdindegia, brikolage eta tresneria**
Uribarri etorbidea 3, Tfnoa: 79 31 99

TEKLIN
Fotokopiak
Enkuadernazioak
Planoen erreprodukzioa
Offseta
Ferrerias 23, ARRASATE Tfnoa: 79 46 62

Altzariak
Diseinua
Apainketa
MARENAZA
Bizkai 1, Tfnoa: 79 08 07 ARETXABALETA

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI BADUZU
EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN
IZEN-DEITURAK.........................................
HELBIDEA.........................................
HERRIA.........................................
Azoka kalea 1, ARRASATE Tfnoa: 77 08 15


77 08 15

## ETXEBIZITZAK

- **45m²-ko lokala saltzen da oso merke.** Edozein motatako negozioa jartzeko. Interesatuek dei egin 94 - 682 04 83 tfnora. Astearte-larunbata bitartean, 9etatik 1era.
- **Logela alokatzen da bi oherekin.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Etxebizitza salgai Zarugalde kalean.** Garajea eta ganbara. Guztiz berria. Tfnoak: 77 09 33 eta 79 04 69.
- **Errenteria aldean lan egin behar dut;** etxebizitzaren batean logela librerik ezagutuz gero, deitu 79 24 66 tfnora. Kepa.
- **Arrasaten erdialdean etxebizitza salgai.** 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, egongela eta ganbara. Garajea aukeran. Tfno. 79 95 46, gaueko 8etatik 10ak arte.
- **Etxebizitza salgai Zaldibarren,** berriztua eta prezio onean. 78m2. Deitu konpromezurik gabe 77 12 22 tfnora,. gaueko 9etatik aurrera.
- **Arrasaten neska edo mutila behar da** etxebizitza konpartitzeko. Deitu astelehenetik ostiralera gaueko 8.30etatik aurrera. Tfnoa: 77 08 90.
- **Aretxabaletan edo Arrasaten etxebizitza alokatuko nuke.** Tfnoa: 79 01 00 Jose Luis.
- **Bilbon etxebizitzaren batean logela librerik ezagutzen baduzu** deitu 76 16 68 tfnora.

## LANA

- **Erretegi batean astebukaeretan lana** egiteko bi emakume behar dira. Tfnoa: 76 22 68.
- **Idazmakinaz eta ordenadorez pasatzen dira lanak.** Tfnoa: 79 62 89.
- **Andrak etxeko lanak egingo lituzke,** orduka. Tfnoa: 79 15 56.
- **Emakumea behar da Gasteizen etxeko lanak egin** eta umea zaintzeko.Tfnoa: (945) 23 29 74 (gauez).
- **Kimika klaseak hartuko nituzke** (1. Injinerutza) Tfnoa: 80 12 54.
- **Hiru gaztek buzoneoa egiten dute Oñatin** 3 ordu t´erditan. Tfnoa: 78 07 72.
- **Etxez-etxe drogeria produktuak** -bizarra kentzeko labanatxoak eta makinilak- saltzeko jende bila gabiltza. Argibide gehiago 76 60 00 tfnoan.
- **Neska euskalduna behar da Gasteizen** etxeko lanak egin eta hiru urteko umea zaintzeko. Deitu 20.00etatik aurrera 945 - 23 01 05 tfnora.
- **Neska prest etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko.** Tfnoa: 79 49 05
- **Emakumea etxeko lanak eta umeak zaintzeko prest.** Tfnoa: 79 65 83.
- **Neskak etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke.** Tfnoa: 79 87 88
- **Pertsona kualifikatua behar da nutrizio programak saltzeko,** 23 urtetik gorakoa. Dei egin arratsaldeko 3.30etatik 7.00etara 77 14 81 tfnora. edo joan Nao de Santiago kaleko 4. era.

## SALEROSKETAK

- **Larruzko butaka beltzak saltzen ditut.** Estreinatu gabe eta oso prezio onean. Tfnoa: 79 52 80
- **Moulinex mikrouhina salgai,** oso berria eta oso merkea. Tfnoa: 79 06 63
- **Furgoneta isotermikoa salgai eta berarekin lan iraunkorra izateko aukera.** Deitu 9.00etatik 12.00 etara 94 - 17 24 16 Tfnora..
- **50ko anplifikadorea ona eta merkea saltzen da.** Probatu nahi baduzu deitu 79 03 69 tfnora.
- **Polk-audio markako HI-FI: bi bafle salgai,** goi mailakoak (SDA CRS+). Interesatuek dei 79 47 90 tfnora. Jabi.
- **Seat Ibiza CLX ia berria saltzen dut.** Lau urtekoa. SS-AB. Interesatuek dei egin gauez 79 24 01. Zele.
- **Adria-Optima karabana salgai.** Tfnoa: 79 69 60. Gomez.
- **Orbea karreretako 54 tailako biziketa egoera onean salgai.** Entrenamenduetarako rodiloa eta arropak (Lagun Arokoa eta estreinatu barik) guztia 20.000 pta.tan. Deitu iluntzeko 8etatik aurrera 79 90 03 tfnora.
- **Aretxabaletako Kultur Etxeak motoreta erako lau bizikleta eta zortzi irristola erosi nahi ditu,** denak bigarren eskukoak. Tfnoa: 79 01 05 lan orduetan.
- **"Data o Tone" organo elektrikoa salgai.** Berria eta prezio onean. Inyeresatuek dei egin: 79 80 55 tfnora. Gauean 8.15etatik aurrera.
- **"Mascot" walkie talkie parea salgai.** Berriak eta prezio onean. Interesatuek dei egin 79 80 55 tfnora. Gaueko 8.15etatik aurrera.
- **Bost lagunentzako kanpign-denda salgai.** Aluminiozko hobiak. Tfnoa: 78 04 89. Arriaran.

## DENETARIK

- **Bi kirolari gara eta Gasteiztik Arrasatera elkarrekin etortzeko lagunak behar dutugu,** asteazken eta ostegunetan, 21.30etan gutxi gora behera. Interesatuek dei egin 79 65 83 telefonora eta Isabelengatik galdetu.
- **Dorleta-Alabitta-Degurixa-Urkulu-Aretxabaleta-Arrasate bidean kolorezko karteratxo bat galdu nuen,** barruan, autoko giltzak eta Titus markako erlojua. Familiako oroigarria denez, aukitu baduzu eskertuko nizuke deitzea. Tfnoak: 77 09 40 edo 79 02 10. Goio.

**ARRASATEN HILDAKOAK**

**ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA**

**TESTUA:** ..............................................................

.......................................................................

.......................................................................

.......................................................................

.......................................................................

.......................................................................

.......................................................................

**Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE**

**Tfnoa: 77 08 15**

# Zer nahiago?

## Juan Martin Elexpuru
### UNEDeko irakaslea



- **Txisteak, idatzi ala esan?** Idatzi errezago.
- **Idaztea ala irakurtzea?** Bietatik.
- **Korrika egin ala bizikletan ibili?** Udaran bizikleta nahiago dut, bestela korrika egitea.
- **Kalea ala baserria?** Baserria, baina baserritik bizi behar ez bada.
- **Entzutea ala hitz egitea?** Txandaka.
- **Taberna ala soziedadea?** Soziedadea nahiago.
- **Solaserako, umeekin ala agureekin?** Norbera umorez egonaz gero, edozeinekin, baina ez gehiegi.
- **Musika arina ala lasaia?** Lasaia.
- **Bidaiatzeko, Iparraldera ala hegoaldera?** Orain artean Iparraldera, baina behar bada aldatuko dugu.
- **Ubera ala Bergara?** Ubera, dudarik gabe.
- **Hitzaldia ala mahaingurua?** Hitzaldia nahiago dut.
- **Liburua ala egunkaria?** Biak, tartekatuz.
- **Pagoa ala aritza?** Pagoa gehiago gustatzen zait.
- **Ordenadoreak ala boligrafoa?** Sorkuntza lanetarako boligrafoa, eta lan mekanikoetarako ordenadorea.
- **Zenbakiak ala letrak?** Letrak, bankukoak ez badira behintzat.
- **Arrasate Press ala Berrigara?** Arrasate Pressen urtetako lana dago, eta behar bada sakonagoa da, baina bihotzez Berrigara, txikia baina polita.
- **Neska guapak ala neska politak?** Guapak eta politak.
- **Harri jasotzea ala aizkoran egitea?** Aizkoran egitea.
- **Lanean, zortzi ordu segidan ala zatika?** Lanean ahal den gutxien eta gustokoa.
- **Telebistan ikusteko, kirolak ala pelikulak?** Kirolak.
- **Bizikletan, aldapan gora ala behera?** Gozatu igotzen, eta disfrutatu jaisten.

# Igarkizunak

**Animaliak**

1. Iluntasunaren laguna
argiaren etsaia,
pilarik gabeko
linternatxo alaia.

2. Igitaia buztanean
zerra buruan,
goizean goiz kantari.
Nor naizen, ezetz igarri!

3. Hegalari trebea
lumarik gabea,
jarri barik arraultzea
egiten du umea,
sagua omen da
baina ez oso gaztea.

4. Zezenaren adarrak
indarra ere berdina,
antzerakoak hankak
baita ere buztana.
Zer izan daiteke
ez bada zezena?

5. Zein ote da, zein
abeslari goiztarra,
kanpandorreko
kantari arra?

6. Azpia zuri
gaina beltz,
udaberrian etorri
neguan ihes,
hegalari beti
gutxitan oinez.

7. Lumaia ederra dut
handia eta zorrotza mokoa,
beti errepikatzen dut
entzun eta ikasitakoa.

Erantzunak:
1. Ipurtargia, 2. Oilarra, 3. Saguzarra, 4. Idia, 5. Oilarra, 6. Enara, 7. Loroa

Felipe Arrizabalaga
aroztegia
Legarre pabiloia Tfnoa: 79 22 76 ARRASATE

PAZI-OLA SA
Zaldizpe kalea 2,
Tfnoa 79 29 94
ARRASATE



*Albesa, Lleida 1938*

1937an Laredon frankisten eskuetan jausitako gudari mondragoetar bati, Joseba Uribetxebarriari, gertatua adierazten du argazkiak. Jausi ondoren, gerrak aurrera egiten zuenez, lan batalioitan sartu zuten Joseba. Batipat Aragoe eta Katalunian zehar ibili zen pala eta pikotxaz kaminoak eta zubiak egiten tropa frankistentzat. Barrakoitan bizi ziren. Goizeko zazpiak inguruan jaiki eta lanera, iluntzera arte. Jan zelabait. Dirua berriz, etxetik jasotzen zuen. Joseba 25. Batalioian zegoen. Ezin zen gehiegi kexatu, tenientea -falangista asturiarra- ona bait zen. Zortzi soldadu izaten zituzten eurak zaintzen.

Argazki hau Albesako zezen plazan atera zen, bazkalondoa egiten ari zirela. Lehen planoan jarrita langile presoak. Ezkerretik hasita, Marcos Aierdi Ataungoa, Jauregi Beasaingoa, Altuna Andoaingoa, Juan Sagarna Zeanurikoa, zutik Fernandez Bilbokoa, Joseba Uribetxebarria Arrasatekoa, Tomas Barrena Bergarakoa, Cornelio Elexpuru Aramaiokoa, Lopez Bilbokoa eta Benigno Baskaran Eibarkoa. Azken hau ezik (Seguruenik Aurora Baskaran Eibarko alkatesaren aita sozialista), gainerakoak abertzaleak ziren, denak gudari izanak.

Atzekoak soldaduak ziren. Bazkalostean tenienteak kantatzeko agindu zien presoei eta horretan ari ziren. Euskaraz ere abestu zuten (Boga-boga…).

Beranduago Ebroko frentera eraman nahi izan zituzten frankisten alde burrukatzera, baina ezetz esan zutenez, batzuk Cordobara bidali zituzten zigortuta eta besteak Bilboko espetxera. Joseba 1940ko San Juanetarako itzuli zen etxera.

ASM
HI-FI CARS SYSTEMS
AUTORAKO ELEKTRIZITATEA
• Autorako soinua
• Alarmak
• Ekipamendua
Legarre Pabilioia, etxebehea,
Tfnoa: 77 02 36 ARRASATE

MARTINEZ
aroztegia
Sukaldetan neurri guztietako altzariak
Araba Etorbidea, 13
Tfnoak: 79 22 81/ 79 18 41

# SAN VIATOR IKASTOLA














# BAKAILO ETXEA

**Makailoa eta beroni buruzko produktuak**

**Makailoa, kroketa eta piper kazolak prestatzen ditugu**

**Mondragones 7, (Azoka ondoan) Tfnoa: 79 93 07 ARRASATE**

# EPELDE

*argazki denda*

**Iturriotz 24**

# "Empty Rooms"

...CLICK...

"Loneliness is your only friend...", entzun, entzun. Begiak ixteaz batera, burmuinak txikitzen hasten zaizkit, bihotzaren taupadak azkartzen. Gu bion artean gertatzen ari den istorioa gogoratzen dut eta...plaust!! beherakada, gorakada.

Batzutan, nire bizitzaren momenturik zoragarrienak lapurtzen ari zarela uste dut. Bestetan, nire existentziaren giltzarik garrantzitsuen bilakatzen zara. Baina orain, segundu honetan, zer zara zu niretzat? Egia esanda, ez dakit, eta min ematen dit. Min bihotzean, ezjakintasun honek sortzen dizkidan nahasteei irtenbiderik aurkitzen ez diedalako. Eta orain, segundu honetan, nire burua gorrotatzen dut.

"Empty rooms, empty rooms...", gela bakarti honetan nire begiek itxirik jarraitzen dute, nire burmuina txikiagotzen, nire taupadek bihotzetik aldegiten. Bakarrik aurkitzen naiz, baina horregatik bakardadea ez da nire lagun bakarra. Zu bakarrik zaude, baina bakardadea ez da zure lagun bakarra. Hemen nauzu lagun, hemen, eta beti maiteko zaituena naizela pentsatu.

Gogor eutsi, aurrera segi, irabazi arte.

*Phillip. L*

MIKEL LASA
ASEGURU ARTEKARITZA

ASEGURU ARTEKARIA
Zure esanetara gauzkazu!

Maalako Errabala 33, Etxabea. Tfnoa: 79 69 00. Fax: 79 69 43 ARRASATE

# ATBren programazioa

**Adi egon, ikusle: datorren aste osoan zehar ATBk ez du emisiorik izango, martxoaren 25etik apirilaren 2ra arte, langileek oporrak hartuko dituzte eta.**

## 1 ASTELEHENA

Ez dago programaziorik.

## 2 ASTEARTEA

Ez dago programaziorik.

## 3 ASTEAZKENA

19.00 **Teletestua.**
20.00 **Berriak,** Arrasateko albistegia, Koldo Rodriguezek aurkeztua.
20.20 **Zenbat buru, hainbat aburu** mahaingurua. Gaia: Bertsolaritza Leintz bailaran.



21.10 **Berriak** (errepikaldia)

## 4 OSTEGUNA

11.00 **Teletestua**
12.00 **Berriak** (bezperakoa)
12.20 **Zenbat buru, hainbat aburu** (bezperakoa)
**Berriak** (errepikaldia)

## 5 OSTIRALA

19.00 **Teletestua**
20.00 **Berriak,** ATBren informatiboa, Koldo Rodriguezek aurkeztua.
20.20 **Erretratoa**, J. R. Elortzak zuzentzen duen elkarrizketa. Gonbidatua: Simon Arregi, Musakolako Jubilatuen etxeko lehendakaria.



20.50 **Musikantoi**, Patxi, Mikel, Asier eta Pepek egiten duten saioa.
**Berriak** (errepikaldia)

## 6 LARUNBATA

11.00 **Teletestua**
12.00 **Berriak**(bezperakoa)
12.20 **Erretratoa**(bezperakoa)
12.50 **Musikantoi**(bezperakoa).
**Berriak** (bezperazkoa)


ALE S.A.
Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
Otzaratzarrak
Giltzak gordetzeko armairuak
Erremintak eramateko gurdiak
Erremintak gordetzeko armairuak
Lan egiteko aulkiak
Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

LORATEGI
taberna
Iturriotz 7, Tfnoa: 79 04 67

ESTETIKA ZENTRUA
lurrundegia, opariak, jostailuak
Zarraoa
Kanpantorpea 4, Tfnoa: 79 12 19

MIKEL
Eskaiola, pintura eta kortxozko apainketa
Tfnoak: 77 12 88 eta 77 12 75
ARRASATE

ÀTB



100. zenbakia dela eta, Arrasate Pressi eskaini zion **Josemari Velez de Mendizabalek** aste honetako *Zenbat buru, hainbat aburu* mahaingurua. **Estepan Plazaola, Goio Arana, Josune Viteri** eta **Beñardo Kortabarria** izan ziren euren lanaren berri ematen, eta aldizkariaren orainarteko bidea aztertu eta aurrera egin beharrekoaz eztabaidatzen. Beste ehun barru hurrengo mahaingurua.



Mediku askoren artean euskarak asignatura pendiente izaten jarraitzen duen bitartean, **Ana Arrieta**, 30, mediku ordiziarra Gasteiztik etorri zen *Zenbat buru, hainbat aburu* mahainguruan Osasungintza Arrasaten gaiaz berba egitera. Anak Iruñean ikasi zuen medikuntza eta Arrasateko anbulategian ari da lanean. Alabatxoa, Itziar, izan duela eta, urtebeteko eszedentzian dago.

## Telebegi

Joan den astean, *Terminus* programakoek elkarrizketa egitera deituta, K-2000 produktora ikusteko parada izan nuen. Hasteko, azafata batek egin zigun harrera. Kafetxo baten inguruan gainerako gonbidatuak ezagutu eta programaren nondik norakoak jakin izan genituen. Ondoren makilaia. Platoko eraketa ere zabalagoa zen: rejidorea, erredakzio laguntzailea, kamarak, soinu eta argi teknikariak, montadoreak, maikiladorea... denak hantxe xehetasun guztiak ondo irten zitezen. Bukatutakoan, han emandako bost orduak gozatze aldera edo, luntxa eman ziguten, eta gonbidatu guztiei sobretxo bana.

K-2000 ez da ETB, baina hala eta guztiz ere ATB bera baino mila aldiz handiago eta aberatsagoa bai. ATBn ez dugu azafatarik, ezta kaferik edota makilaiarik egiten ere, rejidore eta erredakzio laguntzailerik ere ez, eta luntxik edo sobrerik emateko lain ez da inolaz ere heltzen. *Eppur, si muove!*, guztioi esker badabil hala ere. ATB herri telebista delako.

*Joxe Aranzabal*

## Telebelarri

"Inork ez zuen espero hain denbora motzean 1.700 aletatik 7.000 aletara pasatzea".

(Estepan Plazaolak, *Zenbat buru hainbat aburu* saioan).

"Arrasate Press astero-astero jasotzen, euskaraz irakurtzeko ohitura hartu dut, lehen ez nuena".

(Juli Berezibarrek, *Zenbat buru hainbat aburu* saioan).

"Enpresa handiek publizitatea egiteko orduan kontuan izaten dute Arrasate Press".

(Josune Viterik, *Zenbat buru hainbat aburu* saioan).



## ARIES

***Martxoaren 21etik***
***Apirilaren 20ra***

Zure helburuak gauzatzeko ez duzu inongo arazorik izango, Merkuriok behar izango duzun kapazidadea eskainiko dizulako. Komunikaziorako ere egoera ezin hobean zaude, beraz, tirabirak konpontzeko une aproposa duzu oraingoa.



## TAURUS

***Apirilaren 21etik***
***Maiatzaren 20ra***

Lagunartea atsegina egingo zaizu giro horretan egoteko beharra nabarituko duzulako. Finantzei dagokienez, edozein inbertsio egiteko asmotan bazabiltza ez zaitez egon dudamudatan, izango duzu etekinik eta.



## GEMINI

***Maiatzaren 21etik***
***Ekainaren 20ra***

Baliteke tirabirak suertatzea, emozioak eta buruak diotsuna ez direlako bat etorriko. Emozioei eman beharko zenieke lehentasuna behingoan izango ez bada ere, horrela ez zinateke hainbestetan damutuko.



## CANCER

***Ekainaren 22tik***
***Uztailaren 22ra***

Gehiegi arduratzen zara besteen arazoekin, eta ez diozu merezi duen arreta eskaintzen zure buruari. Horregatik ibiltzen zara noraezean. Barne lasaitasuna bilatzen saia zaitez bizipoza sentituko bait duzu eta argiago ibiliko.



## LEO

***Uztailaren 23tik***
***Abuztuaren 23ra***

Energiaz gainezka egongo zara eta motel dagoen guztia bizkortzeko gai izango. Aitzitik otorduetan gehiegikeriak egitea ebitatu beharko zenuke hori bait da benetan gustoko duzuna eta mugarik jartzen ez diozuna. Ondorioak ondotxo dakizu zein izaten diren.



## VIRGO

***Abuztuaren 24etik***
***Irailaren 23ra***

Herabea zara gizalegez eta ez duzu zure eritziak emateko aukera handirik ikusten normalean. Gizalege hori puskatzeko egoera aproposean zaude Virgo, beraz, ez zaitez hain lotsatia izan eta erakuts ezazu zuk zeuk ere badituzula eztabaidarako arrazoiak.



## LIBRA

***Irailaren 24etik***
***Urriaren 23ra***

Ingurukoei eskainiko diezu batez ere denbora, bai lanean bai etxean. Atsegina egongo zara bi toki hauetan aspaldiko partez eta pozez zoratzen egongo dira jarrera aldaketa honekin. Lan arloan aurrerabidea lortzea suerta liteke.



## SCORPIO

***Urriaren 24etik***
***Azaroaren 22ra***

Irudimenez gainezka egongo zara Scorpio eta ahalegin handirik egin gabe burutuko dituzu eginbeharrak. Gustora sentituko zara zeure buruarekin eguneroko betebeharrak gauzatu egiten dituzula ikusiko duzulako.



## SAGITARIUS

***Azaroaren 23tik***
***Abenduaren 21era***

Edozertara moldatzeko kapazidadea izango duzu Sagitarius. Barne bakea izango duzu eta edozeri heltzeko ez dago hori baino medio hoberik. Osasun aldetik lasaitasuna dela zio edo, baliteke idorreria izatea, ez ezazu gehiegizko betekadarik har.



## CAPRICORN

***Abenduaren 22tik***
***Urtarrilaren 20ra***

Baliteke nahi eta ezina suertatzea ez bait zabiltza oso animoso burura datozkizun asmo guztiak betetzeko. Horrelako egoeratan pentsatu eta egin egiten da, bestela asmo hutsean gelditzen bait dira ideiak.



## AQUARIUS

***Urtarrilaren 21etik***
***Otsailaren 19ra***

Sentimentu hutsean bizi izateko joera izango duzu datozen egunetan. Halere, burua ere erabiltzekoa dela gogoan izatea komeni zaizu sentimentuen gurpil zoroan murgilduko ez bazara. Burua erabiltzen lagunduko dizuten ekintzetan parte har ezazu.



## PISCIS

***Otsailaren 20tik***
***Martxoaren 20ra***

Ez da erraza izango besteek zure berbak ulertzea, hankak ohi eta besteak baino zertxobait gorago izango dituzulako. Errealitate konbentzionaletik kanpo bizi den jendearekin jarri beharko zinateke harremanetan lasai hitz egin ahal izateko.


**BULARREKO PATOLOGI UNITATEA**

**Mamografia**
**Gune susmagarriak aurkitzea.**
**Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.**
**Bularreko ekografiak.**
**Bularreko tumoreen zitologia.**

**Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.**

**GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA**



**DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIONDO, OTALORA, RUIZ.**

**Zerkaosteta 17, etxabehea. Tfnoa: 79 20 18 ARRASATE**

# GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
## ZURE ZERBITZURAKO



Gipuzkoako Foru Aldundia

# IKATZ-EN

ARGAZKI ETXEA

## INTERESIK GABEKO



## 3 HILABETETAN ORDAINTZEN DA





I K A T Z
ITURRIOTZ KALEA 8
Tfnoa: 77 O4 01
A R R A S A T E

IKATZ